



ARGIA

ARRAZAKERIA FRANTZIAKO POLIZIAN

Begiratu nahi ez zaion arazoa

24-31. orrialdeak

#2840 | 2023 / 10 / 01 | 4,00 €



**"Euskaraz ia ez dago
audioz deskribatutako
filmarik"**

14 | MANU AGIRRE



**A30eko greba
antolatze
Baterajotzera deia**

32 | FEMINISMOA



**"Irlak badauka
barrurantz zulatu
beharreko zatia"**

42 | 'INTZURA' LIBURUAZ

ARGIA EGUTEGIA 2024

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.



+ 5 €
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.

10€

Memoria ahuldu egiten da lantzen ez bada. Hala zioen Zizeronek eta arrazoi horregatik, bosgarren urtez ARGIAko egutegi honetan efemeride historikoak aurkituko dituzu egunero orrien atzeko aldeetan. Hedabide hegemonikoek beren errebaso historikoetatik kanpo uzten dituztenak dira gehienak, argi esateko. Urteurren borobilez kargatuta datorkigu urtea.

Orrien aurreko aldeetan, data argi eta garbi, euskal izendegia, eguzkiaren eta mareen informazioa, eta jai egunen erreferentziak -arrotzak direnak, hala zehaztuta gainera-, 2024 on!

Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: GABRIELLE CÉZARD / HANS LUCAS

Iritziak

- 19 | IRATI LABAIEN
- 20 | SONIA GONZÁLEZ
- 21 | MIKEL OTERO
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ALBA ALFAGEME
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



35 | "KRUTWIG, EZAGUTU BEHARREKO IGARLEA"

Baleren Bakaikoak Erromako erbestean ezagutu zuen Federico Krutwig. Artikulu honetan bildu ditu bere bizitzako hainbat pasarte, euskarari egin zion ekarpena eta gizarte zein ekonomia mailan egin zituen planteamenduak, Euskal Herriaren etorkizuna oparoa izan dadin. Irakurleoi hainbat gaiez hausnartzeko puntuak jartzen dizkigu artikulu honek.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Urperatzeari egokitzeko aukerak eta mugak erakusten dizkigute bangladeshtarrek

Nicolas Goñi

14 | PERTSONAIA | MANU AGIRRE

"Gu ez gara Euskal Herri politiko instituzionalean bizi"

Miel A. Elustondo

24 | GIZARTEA

Frantziako poliziaren arrazakeria sistemikoa aitortu ezinean

Jenofa Berhokoirigoin

32 | FEMINISMOA

"Neska gazteok doakoak diren lan asko betetzen ditugu"

Leire Artola

42 | KULTURA | INTZURA LIBURUA

Iceberg bat Bidasoaren erdian

Gorka Bereziartua


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre


 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzazkezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.


 Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

A man wearing a dark cap with a red stripe and sunglasses is examining a white garment with several holes on a person's arm. The person is wearing a blue and white patterned jacket. The background is a light-colored wall with horizontal lines.

Bat eta bakarra

Dokumental bat zentsuratzen saiatu dira, ikusi ere egin gabe. Ez dute behar. Jomugan dute Espainiako nazionalismoak bakartzat ezarri duen kontakizunetik aldentu daitekeen guztia, nahiz eta Évoleren lana ez izan horrelakoa. Irabazle sentitzen direlako egiten dute, irabazle txarren modura eta haien komisariatako elektrodoak oraindik bero egonda. “Zerk bultzatu zituen milaka euskal herritar 50 urtez armak hartzera, jakinik horien etorkizun ia ziurra tortura, kartzela, erbestea edota heriotza izango zela?”. Horren moduko galderak interesgarriagoak dira, baita periodistak ere, baina erabaki dute erantzunak bilatzea ez dela egokia Espainiako gizartean. Jardun politikoagatik pertsonak atxilotzen –Zelaia eta Barbado kasu– jarraitzen duen estatuan helburua ez baita bestea ulertzea, azpiratzea baizik.

 Filmaren aurkako pertsona batzuk Zinemaldiko estreinaldian. **JON URBE / FOKU**

 **AXIER LOPEZ**



Arabako ardogintza, eredia aldatzeko unea?

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Hasiera ofiziala eman berri zaio mahats bilketari Araban. 2023an Jaurlearitzak 15,3 milioiko laguntzak eman dizkio sektoreari, milioika litro ardo erabilera industrialerako deslitate edo mahatsa zuzenean botatzeko, "gainproduktioari" eta kontsumo beherrakadari irtenbide gisa. Bitartean, bestelako ardogintza eredu bat bultzatzeko erreminta izan zitekeen Arabako Mahastiak sor-markak epaitegiek geldituta jarraitzen du, eta Errioxa sor-markari arazoak biderkatzen ari zaizkio. "Egoerak ez du zentzurik", ez ekologikoki ez ekonomikoki, azaldu dio ARGIAri Itxaso Compañon ardogile, UAGA sindikatuko kide eta ABRA Arabar Errioxako Upategien Elkarteko presidentea. Egiturazko arazoei egiturazko konponbideak eman beharra defendatu du.

Jaurlearitzak 8 milioi euroko laguntzak eman dizkio sektoreari 2023an, aurreko urteetatik pilatuta zituen 9 milioi litro ardo erabilera industrialeko alkohol bilakatzeko. Eta beste 7,3 milioi eurokoa uztailean heldu gabeko mahatsa inausi eta zuzenean lurrera botatzeko. Milaka tona mahats edo ardo botatzeko milioika euro xahutuak, merkatuaren eskari-eskaintza legearen izenean.

"Ez du zentzurik", laburbildu du bere iritzia Compañonek. Batetik, ekologikoki: alferrik galdutako mahats hori guztia sortzeko erabiltzen dira ura, energia, ongarriak... Bestetik, ekonomikoki: mahats horren atzean baitaude ere lan-denbora edo diru publiko zein pribatua, eta upategi txikiak gero eta estuago bizi dira. Adabaki koiuntural gisa dirulaguntza horiek defendatu ditu, familia-upategi askoren bizirautea jokoan dagoelako, baina eredia agortuta dagoela dio, eta arnas luzeko begirada batekin sakoneko aldaketa bultzatu behar dela. Errioxan azken urteetan "lurralde desegokietan" landatu diren mahatsondoak kentzea ezinbesteko ikusten du, "Errioxako sor-markaren Kontseilu Arautzaileak markatuta ditu". Baina azaldu du Arabako Errioxan arazoa ez dela hori: "Lurralde txikia da eta lurraren ezaugarriak bikainak dira mahatsa ekoizteko". Bi

eginbehar nagusi aipatu ditu: "Mahatsa prezio duinean ordaindu, eta zonaldea berpiztu". Dirulaguntzak horretara bideratu beharko lirakeela dio.

Errioxa sor-markako ardo produktioak gora egin du azken urteetan, eta kontsumoak aldiz behera. Kontakizuna da pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioa dela, baina ardogile askok salatzen dute arazoa aurretik datorrela eta ezikusiarena egin zaiola. "Errioxa sor-markak kantitatea lehenesten du, eta guk kalitatearen aldeko apustua egin behar dugu", dio Compañonek.

"Errioxa sor-markak kantitatea lehenesten du, eta guk kalitatearen aldeko apustua egin behar dugu"

SOR-MARKAK TALKAN

Urteak dira Arabar Errioxako upategi gehienek Errioxa sor-markatik irten eta Arabako Mahastiak sor-marka propioa bultzatzen ari direla. Kantitate vs kalitate ikuspegia da bi ereduaren arteko ezberdintasun garrantzitsuenetakoa, baina harago doa (esaterako, Arabatik auzitan jartzen da ardo "urteko", "kriantza" edo "erreserba" kategorietan sailkatzea).

Sor-marka berriaren jaiotza EAEko Auzitegi Nagusiak geldituta du, eta ebazpenaren zain daude haren bultzatzaileek, urte honetan bertan aurreikusten dutena. Dena den, Arabako Alea-n egindako elkarriketa interesgarrian Arabako Mahastiak izendapeneko presidente Emilio Aguillok ziurtatu du sor-marka epaitegiak geldituko balu ere beste bide batzuk daudela, eta bai ala bai sortuko dutela.

Arabako Mahastiak sor-marka "irtenbidea izan daiteke" eredu aldaketa gauzatzeko, Compañonen esanetan. Izan ere, urtetan nagusi izan den ereduaren agorpen zantzuak eta zentzugabezia inoizko nabariaren azaleratu dira aurten, ahots kritikoak ugaritu dira eta mahai gainean badira proposamen alternatiboak. ●



ERNAI/BILBO

Barbado eta Zelaiak espetxeratze agindua jaso dute

ERREDAKZIOA

Galder Barbado eta Aitor Zelaiak espetxeratze agindua jaso zuten joan den astean. Albistea jakin eta hurrengo egunean, ehunka herritar batu ziren salatzekeo salbuespen egoera ez dela amaitu gazte militanten kontra.

Irailaren 22 goizean, ostiralez, Barbado eta Zelaiari babesa emateko ka-teatu egin ziren Ernaiko gazteak, Bilbon eta Gasteizen. Bilbon, Espainiako Gobernuaren ordezkariordetzan egin zuten ekintza; Gasteizen, Ertzaintzaren komisaldegian atarian. Ertzaintza gazteen aurka oldartu zen, eta Gasteizen bost pertsona atxilotu zituen.

2019ko otsailaren 7an Barbado eta Zelaiak atxilotu zituzten, "material lehegarriak" zituen bidai bat "helburu terroristekin" gordetzea egotzita. Lau urteko prozesuaren ostean, joan den maiatzaren berretsari zituzten bi gazteen aurkako lau urteko espetxe zigorrak. Hilabete bat lehenago iritsi ziren epaien helegiteak Espainiako Auzitegi Gorenera, bi urteko itxaronaldiaren ostean. Bi gazteen absoltzioa eskatu zuen defentsak. Fiskaltzak, aldiz, zortzi urteko jatorrizko kartzela zigor eskaera aplikatzea eskatu zion Auzitegi Gorenari. Erakunde horrek Auzitegi Nazionalak jarritako lau urteko kartzela zigorra berrestea erabaki zuen. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

Zuzen



UXUE APAOLAZA LARREA

Artikuluua hasi da oinez, bazoaz letraz letra, hitzez hitz, esaldiz esaldi eta biribiltzen da paragrafoa. Oztoporik ez, begiko minik ez honek hemen behar zuelako eta ez han, atzera egin beharrik ez ergatiboa falta eta gorpua hiltzailea zela ohartu zarelako. Jaso duzu sarrerako informazioa, edo irentsi duzu amua, egin diozu zeure buruari egileak nahi zuen galdera... Eta erraz eta leun iritsi zara amaierara, ez zegoelako oztopo egin dizun zaratarik, despistatuko zintuen ustekabeko koma bat, jarrita daudelako ideiak hierarkizatzen dituzten puntu eta komak. Liburu, egunkari, aldizkari, testuliburu... erraztuta eta lanbasa ondo pasatuta iristen zaizkigu.

Denek alde egin dutenean, inor iritsi aurretik, inork ikusten ez duen lana egiten dute garbitzaileek. Beraiek bakarrik dakite ia beti zirrikitu hori zikin egongo dela, beste hori jasotzea ahaztu egiten zaiela, eta horrek istripu bat sor dezakeela, bezeroek irrist egingo dutelako ziur, eta ez direlako, erorita ere, zeren erruz jausi diren ohartuko. Gauza batzuk ezkutuan garbitu beharko dituzte, inor ez mintzeko; ordenatutako zenbait gauza ordenatzeagatik muturra okertuko diete, edo kexatuko zaizkie, norbaitek hortxe bertan, erdi-erdian nahi zuelako aulkia, liburua, boligrafo potoa. Eta horiek zeudenean uzteagatik beste norbait pasa ezinik badabil ere, errua garbitzailearena izango da. Beren lana lotsagabe zanpatzen duenik ere bada.

Zuzentzaileak dira gure testuen garbitzaileak. Erredakziotik irteten azkenak, idazlariaren miserien lekuko (ordutegizkoak, gramatikalak, heziketazkoak), kexen jopuntu (bakoitzak daukagulako gure estiloa, ez-ikasteko gogoa, ezin ikasia, ezina norbaiti egozteko beharra)... zuzentzaileei esker irakurri ahal ditugu bestela begiak zaurituko lizkiguketen testuak, eta haiei esker ikas ditzake, nahi duenak, hizkuntza irakurgarri egiten duten arauak. Nik Maitane eta Junkal ditut gogoan, itzulpenak egiten ari nintzela ñabarduretan trebatu ninduten zuzentzaile zorrotzak. Beraiei esker naiz hobea. Gehienetan, zuzentzaileei esker ez dugu lotsarik ematen. Ia inoiz ez da beren lanaren garrantzia aldarrikatzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Nazioartea

Otsailaren 19an Azerbaijanek Nagorno Karabakh eraso zuen, Armeniarekin duen gatazkaren erdian dagoen lurralde menditsua eta armeniar jendea bizi dena. Hogeitalu orduren ostean hango agintariak su-etena sinatu zuten, Errusiaren bitartekaritzarekin, eta ondorioz "desegitea eta erabateko desarmatzea" hitzartu zuten.

Energia

Armintzako kostaldean itsasoan eraikitako airesorgailu bat energia-sarera konektatu dute egunotan. Bada, Europako erakundearen esanetan itsasoan eraikitako eolikoek ingurumena kaltetu dezakete eta Europako Batzordeak ez ditu kalte horiek aintzat hartu "energia urdina" garatzeko bere estrategiaren barruan.

Euskalgintza

Topaguneak birmoldaketa fasea aurreikusi du. Irailaren 22ko batzar orokorrean, Kike Amonarrirek, lehendakartzan, lekukoa eman dio Irati Iciar oñatiarrari. Euskara biziberritzeko proposamen berria prest du Topaguneak. Bestalde, UEMAn ere lehendakari berria aukeratu dute: Martin Aramendi, Ataungo alkatea.

Trantsizio energetikorako ekuazioaren bila



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Ez nire etxe ondoan", horretan labur-bildu zituen Iñigo Urkulluk, bere hitzaldian, berriztagarrien auzian Eusko Jaurlaritzari egiten zaizkion kritikak. Berekoiak ikusten gaitu; ez diogu erronkari behar bezala begiratzen, eta ez gara gai interes orokorra lehenesteak eskatzen duen eskuzabaltasunez aritzeko. Hitzik ez trantsizioa sektore publikotik, estrategikoki planifikatuta eta herritarrei entzunda –eta kasu eginda– egitea exijitzen dugunon iritziez. Erantzunik ez herritarren parte-hartzea bideratzeko proposatutako batzordeen inguruan; makro-proiektuen eredia baztertu eta tokian tokiko errealitateari lotutako proiektu txikien alde egiteko eskaerari ere aipamenik ez; ezta mendiak eta bailarak eolikoz bete ordez hutsik dauden industria-lurrak berrerabiltzeko proposamenari ere. Laburbilduz: "Ez nire gobernuarekin".

Nafarroako Gobernuak, berriz, etxeko lanak eginda dituela hasiko omen du urte politikoa, eta martxan den programarekin segituko du. Berriztagarrien kuota %50 izan behar du 2050. urterako. Badago finantziarioa, COVID-19aren krisiari aurre egiteko diru-laguntzak jasotzeko egitasmoak herritarren parte-hartzerako zirrikituren bat jasotzen baitu. Agian ezberdin egingo dituzte gauzak? Europako *Green Deal* delakoaren baitan eta berau jarraituz finkatutako bidea izanik, herri ekimenetatik sortutako alternatibei aukera gutxi ematen die.

Funtsezko legeak, plan estrategikoak eta gobernu ekimena izaten omen dira trantsizioetan giltzarri. Hirurak ditugu hemen. Baina benetako aldaketak ekartzeko, bada beste gako bat: kapitalaren interesak ekuaziotik kanporatzea, bere lekuan herri interesak kokatzeko. Hori oraindik lortzeke dugu. ●



Txartel banpiroak

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Etxe azpiko fruterian, aste bakarrean, hainbat aldiz suertatu zitzaidan nire aurreko bezeroak hiruzpalau euroren ordainketa txartelarekin egitea, eta errepikapenak eraman ninduen lotsa gainditu eta galdera luzatzera: "Barka Dora, galdera bat egin diezazuket?"; "Bai, jakina, esan"; "Harrituta nago zenbat jendeke egiten dizun ordainketa txartelarekin, baita kopuru txikienezako ere"; "Bai, aurretik ere erabiltzen zuen jendeak, baina pandemia hastean izugarri hazi zen erabilera, eta behin amaituta ohitura geratu da"; "Seguruenik galdera inozoa da, baina bueltaka dut buruan aspaldi: diru oso gutxi denean ere eramaten al du bankuak ehuneko bat?"; galdera inozoa zela baieztatu zidan irribarrez; "Bai, eta behintzat guk negoziatu eta lortu genuen ohiko ehuneko pixka bat jaistea"; "Atrebertzia ez bada, hilean zenbat diru eramaten du bankuak txartel ordainketa-tatik?"; "Ia 300 euro"; "Hilero!"; "Hilero".

Dora egunero goizeko 4etan atxatzen zen handizkako merkatura joateko, fruta aukeratu eta ohera bueltatzen zen tarte batez, goiza eta arratsaldea fruterian emateko. Dorak aukeratutako fruta Miguel bikotekide eta negoziokideak jasotzen zuen beranduago merkatutik, ondoren berak ere fruterian emateko eguna. Izerdi horrek guztiak ematen zien dirutik banpirizatzen zien bankuak hilero 300 euro soilik txartel bidez.

Zenbat negozio txikirentzako izan daitezke 300 euro hilabeteen bizirautearen eta heriotzaren arteko muga? Azken urteetan itxi duten zenbat komertzio txiki leudeke bizirik txartelen odolustutzerik gabe? Zenbatak itxiko dute?

Iragan uztailean utzi zuten fruteria Dorak eta Miguelek, Miguelen sorterri Asturiasen ortu bat landatu eta bertatik bizitzeko proiektua amets. Pandemiaren hasieratik uztailean joandako hilabeteen kalkulu azkar bat eginez (39) –eta aurretik banpirizatutakoa alde batera utzita–, beren proiektua abiatzeko 11.700 euro gehiago izango lukete aurreztuta, herritarrok esku-dirua erabili izan bagenu.

Nire atariko atetik ezkerrean egin eta lehenbiziko 100 metroetan bost negozio txiki daude: Doraren fruteria, bi taberna, bizartegia eta okindegia. Erreferentzia gisa fruteriaren kopuruak hartuta, hilabetero bankuak 1.500 euro banpirizatzen dizkie auzokideei 100 metroko espazioan, pandemiaren geroztik 58.500. Zeinek eta Espainian 2008-2022 aldian 164.774 milioi euro irabazi dituzten bankuek, epe berean 37.00 langile kanporatu, 9.351 bulego itxi eta diru publikotik 120.000 milioi euro jaso dituzten berberak.

Txartelak aukeran inoiz ez, kreditu bidez kontsumoa areagotzeko eta kontsumo ohituren datuak aztertuz kontsumismoa are gehiago areagotzen ikasteko gailuak diren heinean, besteak beste. Baina, behintzat, Dorari fruta, Hakimi ogia edo Mikeli potea ordaintzean (aldatu izenak eta produktuak zure etxe ondo-koengatik), ez gaitzen izan banpirizazio horren konplize.

PD: Aste honetan udaletxera ikastaro bat ordaintzera joan eta esku-diruarekin ezin, txartelarekin halabeharrez, erakunde publiko batean: hara, autobanpirizazioa. ●

TEKNOLOGIA

Deserosotasune-rantz



DIANA FRANCO

Pasa den astean, Extremaduran, neska gazte batzuek salatu zuten adimen artifiziala erabiliz euren aurpegiekin sortutako pornografia sintetikoa sareetan partekatu zutela. Adimen artifizialak gure gizartean ditugun tresna berriak dira, iraultzaileak, eta eskura daude. Gainera, adimen artifizialek eremu digitala eraldatzeko gaitasuna dutela dirudi, eta horrekin batera gure gizarteak.

Baina prestatuta gaude gizakiok eraldaketa berri hau ulertzeko eta bizitza on baten helburura egokitzeko? Beharbada asko bai, baina denok ez. Badirudi teknologien garapena ez dagoela gure gizartearen heldutasunari egokituta. Balioetan indartsuak diren gizarteak ez ditugun heinean, bai teknologiek bai gizakiok bortizkeria eta bazterkeria errepikatzen jarraituko dugu.

Data bertsuetan, LAB sindikatuak antolaturiko "Digitalizazio Burujabea Hezkuntzan Topaketa" ikus ahal izan nuen. Hausnarketa interesgarriak partekatu ziren, tartean Iratxe Esnaolaren hauxe: "Hezkuntzan egiten ari garen digitalizazio ereduaren ez da hausnarketa sakonik egin". Hausnartzea gizakiok sorturiko egituretan, publiko zein pribatu, ez da erraza, sistemak gelditzea ekartzen du, eta horrek diru kontutan sartzen gaitu. Gainera, erabakiak hartzera bideratzen gaitu, eta erabakiak ez dira beti denontzako onuragarriak izango.

Bitartean, hausnarketa bideratzen ez badugu, nork hartzen ditu erabakiak? Zein helbururekin? Erakunde askotan, teknologiarik loturiko erabakiak erosotasunagatik hartzen dira, erabaki zuhurrak, arazorik emango ez dutenak. Eta sarri, teknikariok, sistemen zaintzaileok, horretarako heziak izan gara. Baina bizi dugun mundua hain da konplexua, ezen, teknologia erosoan gure bizitzak, gizarteak eta herriak menderatzeko teknologia ere bilakatu direla. Publizitate enpresen adimen artifiziala haur, gazte eta familietan sartu dugu, hezkuntzan txertatu ditugun sistemen bitartez. Ez da erraza izango, ezta eroso ere, baina hezkuntzan dugun digitalizazio ereduaz sakonago hausnartu beharko genuke. ●

"Geuk erabakiko dugu nor etorriko den Europar Batasunera"

URSULA VON DER LEYEN

Europako Batzordeko presidentea "Migrazio irregularra gelditzeko" plana aurkeztu du, Italiako eskuin muturreko lehen ministroarekin batera.

2023-09-19



"BADIRUDI HIZKUNTZA ESKOLA ENPRESA PRIBATUA BAILITZAN KUDEATU NAHI DUELA HEZKUNTZA SAILAK"

JAUME GELABERT

Iruñeko Hizkuntza Eskolako euskara irakaslea da Gelabert. Euskara ikasteko eskaintza da murriztu duten bakarra Eskolan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak hala erabakita.

ARGIA.EUS (2023-09-19)

"Gure batzokien konfort-etik ateratzeko unea da, errealitate berrietara parez pare irekitzekoa"

ANDONI ORTUZAR

Euskadi Buru Batzarreko presidentea, EAJren Alderdi Egunean.

2023-09-24



Hiru urtero bozkutzen da senatarien erdia

Herriarrak ez ziren bozkatzera deituak Frantziako Senatuaren-tzako. *Hautesle handiak* deituriko ordezkariak dituzte aukeratzen senatariak, hau da diputatuak, departamendukoetako eta eskualdetako kontseilariak eta herriko etxeen ordezkariak. Azken horiek osatzen dute bozkazaleen %95 inguru -herriaren tamainaren arabera- da ordezkari kopurua: herri txikiak bakarrik dute, baina handienetan herriko kontseilari guztiak dute bozkatzeko.

Baina bozkatzaleei dagokionez ere, ez ziren guztiak bozkara deituak: hiru urtero Senatuaren erdia da berritzen, sei urterako aukeratuz senataria. Irailaren 24 honetan 348 aulkietatik 170 berritu dituzte eta 45 departamenduetako 80.000 *hautesle handik* dute bozkatu. Ipar Euskal Herria barne biltzen duen Pirineo Atlantikoetako departamenduetan aldi honetan aukeratu ditu bere hiru senatariak. 2011ko erreformak ekarri zuen hiru urtero erdia izendatzeko erabaki hori.

Departamendua ez da senatari kopuru bera eta biztanle kopuruaren arabera finkatzen da aulki kopurua. Demagun, Ipar Euskal Herriak eta Biarnoak osatu Pirineo Atlantikoetakoak hiru ordezkari ditu Senatuan. Senatari bakarrik edo bi izendatu behar dituzten departamenduetan hautagaiarentzat bozkatzeko da, baina besteetan zerrendak osatzen dira -hori horrela, gertatu daiteke zerrenda batek aulki bat baino gehiago eskuratzea-.

Behar orduan, Senaturako *hauteskundeak* bi itzuli izan ditzake. Haatik, biak egun bakarrean egiten dira. Senatuak eta Legebiltzarrak osatzen dute Frantziako Parlamentua, biek dutelarik botere legegilea. Frantziako Konstituzioko 24. artikuluarik segi, lurralde kolektibitateen ordezkariak dira senatariak -horregatik dute horiek bozkatzeko eta ez herriarrek-. Frantziako Senatuaren beste erdia berritzeko ondoko *hauteskundeak* 2026an izanen dira. ●

Espagnac, Brisson eta Saint-Pék segituko dute Ipar Euskal Herriko senatari

Ez da aldaketarik gertatu Ipar Euskal Herria eta Biarno barne biltzen dituen departamenduan: Frederique Espagnac (Alderdi Sozialista, ezkerra), Max Brisson (Errepublikanoak, eskuina) eta Denise Saint-Pé (Modem, zentroa) senatariak segituko dute Frantziako Senatuan beste sei urterentzat. Hori horrela, hirugarren kargualdiari lotuko zaio Espagnac eta bigarrenari beste biak. Botoen %33,82 -608 boz- jaso ditu Espagnacek, %30,76 -553 boz- Brissonnek eta %20,19 -363- Saint-Pék eta 2017ari alderatuz, Espagnac mantendu da (-1), Brissonnek emaitza hobea egin ditu (+242) eta Saint-Pék indarra galdu du (-46).

Aurreikuspenak baieztatu dira beraz Pirineo Atlantikoetako departamenduan, eta botoen kontaktak hasi eta laster irudikatu zen orain artekoen garaipena eta eskuinak zentroari bigarren lekua hartu izana. Emmanuel Macron presidentearen politika zigortzeko bide gisa ikusi da duela sei urte

zentroarentzat bozkaturikoek aldi honetan eskuinera jo izana.

1.879 *hautesle handi* deituak ziren bozkara Pirineo Atlantikoetako departamenduan: herriko kontseiluetako ordezkariak, departamenduko edo eskualdeko kontseilariak eta diputatuak. Orotara bederatzi hautagai ziren lehian eta laugarren atera dira ekologistak (%5,45), ondotik dituztelarik komunistak (%2,61), eskuin-muturreko Reconquete (%2,34) eta Le Penen RN (%2,11), etiketarik gabeko Michel Lamarque (%1,56) eta ezker muturreko France Insoumise (%1,17).

ESKUIKAK, BIDER LAU

Aitzineko *hauteskunde* alderatuz eskuin-muturrak izugarriki gora egin du: Reconquete eta Rassemblement National hautagaitzen botoak batuz %4,55 lortzen du. Pirineo Atlantikoetako 80 *bozkazale handik* diote eskuin muturrari eman botoa. Duela sei urte 20 izan ziren -lau aldiz gutiago-. ●



Ipar Euskal Herriko hiru senatariak, ezkerretik hasita, Saint-Pé, Espagnac eta Brisson.

Eskuinak segituko du Frantziako Senatuan lehen indar izaten

Errepublikanoak eskuinteko alderdiak segituko du Frantziako Senatuaren lehen indar izaten. Balorapen baikorra egin du Senatuaren presidentea Gerard Larchere: "Gehiengo argirik ez duen Legebiltzarraren alboan, Senatuak egonkortasuna irudikatzen du inoiz baino gehiago, gure herriak bizi duen krisi sakona gainditzeko ezinbesteko oreka osatuz". Orain arte bezala, eskuineko eta zentrotako senatariekin eramanen du bere politika Emmanuel Macronen Gobernuak, eskuina gabe ez duelako gehiengorik: zentrotako 78 senatarien artean hogeitabat bakarrik dira Macronen alderdikoak.

EZKERRAK 96 SENATARI

348 senatarietatik 100 lortzea zuen "helburu sinbolikotzat" jarria ezkerrek. Komunistekin eta ekologistekin akordio batera iritsi zen Alderdi Sozialista, baina ez zuen lortu ezker muturreko La France Insoumisekin. Alderdi Sozialistak orain arte zituen 64 aulkiak


atxiki ditu, Alderdi Komunistak 17 lortu ditu (+2) eta Europe Ecologie ekologistek 15 (+3). La France Insoumisek ez du ordezkariarik lortu eta gogorki kritikatu du "ezker zaharkitua" akordiora iritsi ez izanagatik.

Emaitzen balorapen baikorra egin du ezkerreko taldeak. Esanguratsuenen artean Parisekoa aipatu beharra dago: zortzi senatari lortu ditu ezkerrek eta lau eskuinak. Zortzi horien artean dira hiru ekologista, tartean, Yannick Jadot iazko presidentzialetan ere aurkezturikoa.


LE PENEN RN BERRIRO SENATUAN

Eskuin muturreko RN alderdiak ez zuen senataririk, hain zuzen, zeukana Eric Zemmouren Reconquete alderdira pasa zelako iaz. Ondoko sei urteetan RNk berriz izanen du ordezkariak, hiru senatari aulki lorturik. Hala ere, ez du talde politikorik osatzeko gaitasunik, gutienez hamar hautetsi behar direlako. ●

Irailaren 24ko emaitzak



Senatuaren osaketa berria



Kanaky

Gobernukide bakarra aurkeztu da Senaturako hauteskundeentzat: Sonia Backes Estatu-Idazkaria. Frantziaren baitan segitzen duen Pazifikoko Kanaky-n aurkeztu da. Zaplazteko esanguratsua bildu du, FLNKSko Robert Xowie independentista gailendu zaiolako. "Data historiko batean" gertatu izana azpimarratu du senatari berriak, irailaren 24 batez kolonizatu zuelako Frantziak Kanaky, 1853an hain zuzen.

Europara salto

Frantziaren menpe diren nazioetako eragile abertzaleen federazioa den Regions et Peuples Solidaires – "Lurralde eta Herri Solidarioak" – taldea Europako Parlamentuan entzuna izanen da. Hain zuzen, orain arte eurodiputatu zen Yannick Jadotek Senaturako aulkia lorturik Europako kargua utzi dio federazio horretako bozeramaile den Lydie Massard bretoiari. Izendapen horretaz poztu da EH Bai koalizioa ere.

Gizon zaharrak

Gizon adindunez osatua izanaren fama du Frantziako Senatuak, eta nonbait egia da: %65 dira gizonaek eta %68ak du 60 urte baino gehiago. 348 senatarien artean, 40 urte baino gutiago dutenak 10 baldin badira, 237 dira 60 urtez goragokoak. Bestalde, herritar arrazializatu oso guti dira ere. Datu horiek 2023koak dira eta irailaren 24 honetako emaitzek ez dute tendentzia norabidez aldatu.

URPERATZEARI EGOKITZEKO AUKERAK ETA MUGAK ERAKUSTEN DIZKIGUTE BANGLADESHTARREK

Bangladesh, bere geografiagatik, populazio dentsitate handiko herrialdea izateaz gain, muturreko eguraldien aurrean oso zaurgarria ere bada. Itsasoko erasoen eta ibaiak ahultzearen aurrean, kostaldea babesteko hainbat ekimen bultzatu dituzte bertatik. Halere, egokitzapenak muga batzuen barruan bakarrik funtziona dezake, eta bertakoen eta Gobernu Kanpoko Erakundeen lorpenak ederrak izanik ere, nazioarteko elkartasunik gabe mende honetan ezinen da betiko urperaturiko lurretako migrazio masiboa saihestu.

 NICOLAS GOÑI

Munduko delta handiaren –Ganga ibaiarena– kokaturik dago Bangladesh. Ganga eta Brahmaputra ibaiak ekarritako jalkinen ondorioz munduko lur emankorrenetakoa ditu, eta horri esker 170 milioi pertsona bizi dira Euskal Herriko azaleraren zazpikoitza baizik ez duen herrialde honetan. Bazter oso lauak eta garaiera apala ditu: itsas maila metro batez igoko balitz, lurraldearen %10 urperatua legoke, aldizka edo beti, eta ur gazia barnekalderago sartuko litzateke. Hori aski ez balitz, zikloi tropikalen aurrean munduko herrialde zaurgarriena Bangladesh dugu, apala izateaz gain Bengalako golko bazterrean delako, eta bertan maiz sortzen direlako zikloiak eta horiei loturiko ekaitz-mareak. Ozeanoak montzoiak ere sortzen ditu, askotan uholdeak eragiten dituztenak. Ez da harritzekoa beraz Bangladesheko kostaldea munduko eremu hauskorrenetakoa izatea.

Qazi Kholiqzaman Ahmad ekonomialariaren arabera, 2050 urtean 50 eta 60 milioiren artean izan daitezke errefuxiatuak. Bangladesh's Soil Resources Development Institute erakundearen arabera, 1947tik 2009ra, 1,056 milioi hektarea itsasoratu dira –Euskal Herriko azalaren erdiaren baliokidea– eta lurzoruen salinitatea %26 igo da

azken 35 urteotan. Gabura uhartean, biztanleek dagoeneko ez dute ur gezarik eta egunero distantzia luzeak egin behar dituzte ur bila joateko. Gatzarengatik laborantzak janeko ez duenez ezer ekoizten, gero eta biztanle gehiago izkirak edo otarrainxkak haztera pasatzen dira, bertze aterabiderik ezean, horrek dakarren albo kalte handi honen: mangladien desagerpena.

KOSTALDEA, KONPONBIDE BILA

Baldintza horiek ekosistema oso be-rezi baten garapena baldintzatu zuten: kostalde jalkintsu honetan dugu munduko mangladi handiena, Sundarbans oihana, UNESCOren munduko ondarea, Ramsar gunea eta biosferaren erreserba. Bertako bi zuhaitz espezie nagusiak, bengalera sundri eta gewa izenekoak, marearteko eremuan bizi dira, itsasbeherean sustraien zati bat airean izanik, eta itsasgoran sustrai horiek itsasperaturik. Lokatz gazikara horietan garatzeko duten gaitasunari esker, ekosistema aberatsa sortu da, 453 espezie aterpetzen dituena. Baina noiz arte? Horren babesteko, eta otarrainxkaren ekoizpena jasagarria izan dadin, Global Nature fundazioak programa bat bultzatu du, mangladi-ko akuakultura integratua garatzeko. Honetan, mangladiak kendu baino haz-

tegietan bertan birlandatzen dituzte, eta otarrainxkak bertan hazten dituzte, gero ziurtapen baten pean salduz. Horrek esportazioen mendekotasuna konpontzen ez badu ere, behintzat mangladien birlandatzea epe laburreko interesekin birlotzen du. Maila handiagoan, halere, mangladi horien babes estatutua zaharkitua da, oraingo salinitate baldintzek espezie nagusien habitatak barnekaldera mugitu dituztelako, eta babes eremuak eguneratu ezean, nekez babestuko delako ekosistema.

Hego ekialdean, mangladirik gabeko Kutubdia uhartean, arrezife artizialak plantatu dituzte bertan ostrak gara daitezten. Chittagong unibertsitateko Mohammed Shah Nawaz Chowdhury itsas biologoak lideratu duen esperimentu baten arabera, ostra arrezifeek higadura %54az murriztu, urtebetean 29 zentimetroko jalkinak arrezifearen barnekaldean metatu eta kanporaldera itsas paduren garapena bultzatu ditza-kete. Bertze albo-onuren artean dugu ere lanperna, mangladi-karamarro eta hainbat arrain espezie agertzea, bertako arrantzaleek baliatu ditzaketanak. Chowdhuryren arabera, arrezife txiki batek bi familientzako irabaziak sor ditzake, karamarro honen harrapaketan oinarrituz.



GENERO DESOREKAK. Emakume batek bideratu familiek haien baliabideen zati askoz handiagoa erabili behar dute hondamendiei aurre egiteko, gizon baten karguan direnei alderatuz. Oinarrian, pobreagoak izan ohi direlako emakumeak. Argazkia: Wikimedia.


Kostaldez gain, erreka bazterreko lurretan aurkitzen dira ere itsas mailaren gorakadak eta gatzak kalteturiko eremuak. Horietarik batzuk urperatuak dira urtean zazpi hilabetez. Horri aurre egiteko, Mugarjhor eskualdeko laborari talde batek antzinako teknika bat berpiztu du: baratze flotagarriak. Almadia moduko egiturak dira, banbuz eta urhiazinto arruntez eginak, 60 eta 120 zentimetro arteko garaierakoak. Bertan, egur txirbilak eta koko zuntza metatzen dituzte ongarri gisa, eta kuia, ziazerba edo okra haziak. Gizonezkoek eramatzen dituzte almadia horiek urera, baina emakumezkoek prestatu, hilabetetako lan gogor hori haien gain hartuz. Auzolan ekimenez gain, Bangladeshko Arroz

Ikerketa Erakundeak ("Bangladesh Rice Research Institute") arroz mota berriak sortu ditu, ohizkoa baino hiru biderreko salinitatea duten lurretan hazi daitezkenak.

LAGUNTZA ESKASAK GENERO DESOREKAK HANDITZEN DITU

Bangladeshtarrek tokiko baliabideekin garaturiko asmakizunak txalotzekoak izanik ere, funtsean, laguntza materiala dute eskas gehiago egin ahal izateko. Palli Karma-Sahayak Foundation garapenerako antolakundearen bozeramailea den Fazle Rabbi Sadeque Ahmedek dionez, herrialde garatuek Nazio Batuen mailan hitzemandako laguntza funtsetarik oso guti iritsi dira oraingoz Ban-

gladeshera. Horren ondorioak gehiago pairatzen dituzte emakumezkoek, gizonezkoek baino. Hain zuzen, Ingurune eta Garapenerako Nazioarteko Erakundearen ikerketa baten arabera, ama bat buru duten familiak pobreagoak izanik, haien irabazien zati handiagoa erabili behar dute hondamendiei aurre egiteko, aita bat buru dutenek baino, hain zuzen ere, zati bikoitza. Ur gezarik ez dagoen tokietan emakumeak dira egunero kilometroak egin behar dituztenak ura kausitzeko. Eta hurren zaintza beren gain izanik, ez dute tokiz aldatzeko gizonen bezainbertze erraztasunik, eta zaurgarriagoak dira beraz. Horrek guztiak, oraingoz, erabakien angelu itsu batean dirau. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com



Manu Agirre

UME ITSUEKIN AKORDATZEN?



GU EZ GARA EUSKAL HERRI POLITIKO ETA INSTITUZIONALEAN BIZI



Kolorea eta argia ez ditu bereizten, ez du itsu ez garenok bezala ikusten, bestela baizik. Ez gaitu ikusten, ez dugu bera ikusten. Itsu gara bata bestearentzat. Hizketan hasi orduko ikusi dugu elkar, haren euskara segiduari gozo segitu diogu, hikarik naturalenean. Berak ekarri dizkigu gogora Bernardo Atxagaren poemako hitzak, Ruper Ordorikaren edota Mikel Laboaren ahotsean: “Eta ume itsuekin... akordatzen al zarete inoiz?”.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

1958an Ataunen jaioa zaitugu, San Martingo Aizkorondo baserrian, mendian. Transistorea lagun...

Etxean bazen irrati handi bat, nik beti han ezagutu nuena. Eta, aparte, nik neure transistore hura neukan, anaiak ekarritakoa... Zortzi senide izan gintuzun, nahiz eta zaharrena umetan joan zitzaigun; inork ez zuen hura ezagutu. Orain bi anai-arreba zaharrenak ez daude gurekin. Etxeko txikia izan nintzen, oso txikia ere, nire aurreko arreba jaio eta bost urtera etorri nintzen-eta ni mundura.

Noizdanik duzu itsumenaren kontzientzia hartzea?

Oso umetatik. Besteak ez bezalakoa nintzela jabetu nintzen, ez nindutela besteak bezala tratatzen. Maitasun osoz eta goxotasunez tratatuta ere, oso umetan konturatu nintzen ez nintzela berdina. Lau-bost urte izan nitueneko, banekien besterengandik bereizten ninduen zerbait nuela. Eta ez zen gauza metafisikoa, giroan zegoen zerbait zehatza baizik: “Ai, ez du ikusten! Gizajoa!”. Maitasun handia jaso nuen familian, baita inguruan ere, baina ezin ezberdintasuna di-

simulatu: itsu jaio nintzen, eta gizarteak itsutasunari buruz zituen ikuspegi, balio eta aurreiritzi guztiak jaso nituen. Hala-xe da gauza.

Nolakoa izan zenuen eskolatzea?

Eskolara joaten nintzen, baserritik ordu-betera oinez, eta hantxe egoten nintzen: egon, eta aditu. Dena erdaraz zen, jakina, pentsatu ere ez eskolan euskaraz batere lanik egitea! Baina nik egon eta aditu besterik ez nuen egiten, ez nuen etsaminik egiten, ez nengoan akademikoki eskolatuta.



Manu Agirre Eskisabel

ATAUN, 1958



Herriko eskolan lehen ikasketak egin eta Espainiako Itsuen Erakunde Nazionalaren pean egin du bizi-modua. Pontevedrara jo behar izan zuen 11 urte zituela, eta Madrilerera gero, batxilergoa egitera. Kale kantoiari jarri, eta kupoiak saltzen ari zen Bilbon 1978an, eta halaxe egin du bizimodua, 50 urte zituela erretiratu zen arte. Barrutik bizi ditu itsuaren nekeak eta, are, itsu eskaldunaren penak. Militante izan da, hala ONCEko sindikatua eratu zenean, nola geroago LABen. Ez du kolorerik ez argirik ikusten, baina bi begik ikusten dutena baino gehiago ikusten du Manu Agirrek.

Eta, orduan, zer?

Espainian bazen lege bat, itsu guztiak ONCEn [Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala] afiliatzera behartzen zituen. Erakundeak lau barnetegi zeuzkan, itsuak eskolatzeko. Penintsulako iparraldekoiei Pontevedra zegokigun, eta haraxe joan nintzen 11 urte bete bezperan. Hantxe hasi nuen nire espediente akademikoa. Eta hasi nintzen braillez ikasten, adibidez. Haustura ikaragarria izan zen. Pontevedran hiru urte ez nituen egin. Batxilergoa hasteko azterketa bat egin, eta Madrilerera joan nintzen, hantxe egiten zen-eta batxilergoa. Orduantxe hasi nintzen pentsatzen.

Zer esan nahi duzu, esanez, pentsatzen hasi zirela?

Guretzako modukoentzako tokia zela hura, gizarteak leku huraxe eman zigula, bazterrekoa. Neure burua kokatzen hasi nintzen. Han egon, eta hurrengo pausoa zen kalean kupoiak saltzen hastea. Horretaz ere pentsatu nuen, neure kasa, eta ondokoekin, egoera partekatzen genuen-eta. Gauza asko ikusi nituen barnetegi hartan. Bakoitzak ahal zuen moduan eramaten zituen barruko minak, eta ikusita-koak franko pentsarazi zidan.

Kupoiak saltzen egin zenuen lan, Bilboko San Frantzisko auzora etorrita, 1978an.

Horixe. Euskal Herrira etorri nahi nuen. Hemengoa naiz, hemen nahi nuen, baina Euskal Herrira etorrita ere, etxekeogandik oso hurbil ez egotearren: nik autonomia izateko, eta etxekeak ere lasai bizitzeko, nire pentsikan egon beharrik ez izateko. Bestalde, lan kolektiboa egin nahi nuen itsuekin batera, eta, horretarako, jendea behar nuen. Madrileko azkeneko garaian nire hausnarketa ez zen-eta indibiduala izan, kolektiboa baizik... Baina utzidazu gauza bat esaten...

Zeuk esan.

Ni geografikoki Euskal Herrian bizi naiz, baina herritar bezala, nire bizitzako atal nagusietan euskal instituzionalizaziotik aparte bizi naiz. Euskal administrazioek oso eragin txikia izan dute nire bizimoduan. Nire lanak ez du inoiz loturarik izan ez ohiko lan-merkatuarekin, ez eremu publikoarekin, ez hemengo enplegu bulegoekin. Gure lana Espainiako Itsuen Erakundearen

esku zegoen, eta dago. Guregan eragin handiagoa du, oraindik ere, ONCEk, hemengo euskal administrazio orokor-rrak baino.

Kupoiak saltzeko lanean jartzen ditu ONCEk itsuak.

Itsuek Espainiako Itsuen Erakundearen araberrako lana egiten dute. Eta behin eta berriz jo dugu Eusko Jaurlaritzara, esanez hemen eskolatutako ume horiek, derrigorrezko ikasketak egin eta lan-zuzendaritza edo dena delako berezi bat behar dutela, lanera bideratzeko, bestela lan-merkatuak ez dielako aukerarik emango, edo aukera urriren bat besterik ez. Elkarte Politikoen Legea eman zutenean, sindikatua eratu genuen Itsuen Erakundearen barruan. Trantsizio garaia zen. Oso gai polita.

Espainiako Trantsizioa, gai polita? Zer izan zen Trantsizioa itsuentzat?

Trantsizio garaian, ONCEk baliabide oso handiak izan zituen: inoiz ezgaituen elkarte batek, edo aniztasun funtzionala dutenen elkarte batek, izan dituen baliabideak baino gehiago. Eta hori horrela izan zen hamabost urtean, gutxienez; 1985etik 2000. urtera arte-edo. Baliabide itzelak izan zituen ONCEk, ikaragarrikoak, irabazi handiak, sekulakoak, baina, gero, ez zituen baliabide haiek erabili itsuen kolektiboari aukera berriak sortzeko; lan-merkatuan behar bezala sartzeko, adibidez. Itsuen erakunde horrek hamar aldiz biderkatu zuen aurrekontua. Ea zeinek egiten duen hori!

Nora joan ziren baliabide izugarri haiek?

Hor bada liburu bat *La rosa y el bastón* [*Todas las conexiones entre el imperio de Miguel Durán y el poder socialista*, José Díaz Herrero eta Juan Luis Galiacho, Temas de Hoy, 1992] Hor esaten da Felipe Gonzálezen garaian zertan erabili zen Itsuen Erakundearen diru hori. Eta, besteak beste, erabili zen Telecinco finantzatzeko, [Silvio] Berlusconi tarteko zela, "albertotarren" [Alberto Cortina, Alberto Alcocer] banketxeen balizko fusioa laguntzeko [Banco Central, Banesto] eta PSOEn gustatzen ez zitzaion egunkari bat, *El Independiente*, ixteko [1991ko apirilean erosi zuen egunkari hori ONCEk. Itxia zen urriaren 31n], eta abar. Eta izugarriko diru pila zutenez, pu-



Azken hitza

GALDERAK 2 (BERNARDO ATXAGA)

“Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak? Kausitzen al duzue maitasunik sikiera zuen maitatuen arteko ehundiko hogeitabost edo hogeiairen baitan? Zuen erresumako lurraldeen artean ba al dago Greenland edota Groenlandia deitutako parajerik? Ospelak al dira hango haranak? Ba al daude Shell konpainiako gasolinategiak? Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak? Ez al duzue karramarroekin ametsik egiten? Eta ume itsuekin?...”.

blizitatez josi zuten mundua. Adibide bat jarriko dizut: 1988an, ONCeren 50. urteurrenean, afiliatu bakoitzari 100.000 pezeta eman zizkion erakundeak. 50.000 afiliatu ginenez, bost mila milioi pezeta! Gizarte erakunde batek emandako eskupekoa! Eta segi!

Jakinarazi zenidan era honetako egoerak salatzeke erabiltzen dituzula elkarrizketak...

Bai, esan nizun. Etorri hona, beste gauza bat erakutsiko dizut. [Eta zalu jaiki da, eta eraman nau gelako apalategira] Ikusten duzu, ezta?

‘Mapa Político de Europa’, dio.

Horixe, bada. Itsuentzat egindako mapa. Herrialdeak, hiriburuak... Ni eskolan ibili nintzenean, orain dela 50 urte baino gehiago, baziren mapa hauek; ONCEk egiten zituen, eta egiten ditu oraindik. Adi! Euskal Herriko maparik ez dago. Bizkaikorik ez dago. Gipuzkoakorik ez. Nafarroakorik ez. Arabakorik ez. Iparraldekorik ez... Hitz egin dugu [Eusko Jaurlaritzako] Kultura sailarekin. Jakinaren gainean daude. Filmak eta dokumentalak, audioz deskribatutakoak, gero eta gehiago daude, hizkuntza askotan. Euskaraz ia ez dago batiere.

Zein duzu liburu hori, sofan irekita daukazuna?

Joxe Azurmendiren *Pentsamenduaren historia Euskal Herrian*. Oso Joxe Azurmendi zalea naiz, eta teman jarduten dut haren liburuak braillera itzultzeko eskatzen, irakurri ahal izateko nik. Eta dozena erdi bat itzuli dituzte: *Espainolak eta euskaldunak*; *Azken egunak Gandiagarekin*; *Volkgeist*, *Herri gogoa*; *Espainiaren arimaz*... Nik eskatu egiten dut, halako batean braillera itzultzen dute –itzultzen badute, behintzat–, eta halako batean etortzen da... Horrela ibiltzen gara. Baina, lehen, hori ere ez zegoen.

Euskaraz ere irakurtzen duzu, behintzat.

Hor gabilta. Beste liburu bat, sekulako inpresioa egin didana –eta argitaratu zenetik oso gerora arte irakurri ez dudana, aukera ere halaxe izan dudalako–, Nafarroako triskantzari buruzkoa: *Navarra 1936. De la esperanza al terror*.

Izugarrria da, baina izugarria! Aspaldiko liburua duzu, baina oraindik orain irakurri dudana. Jota utzi nau... Gainerakoan, Euskadi Irratiko *Lizardiren baratza* gustura aditzen dut, Jose Luis Padronek egiten duen saioa. Ez naiz poesia letu zalea, baina aditu bai, Padronen ahotsean aditzen dut. Eta musika zale ikaragarria naiz. Oraintxe eskuetan dudan disko hau [#itsaso adabidebarkarra], zoragarria da. Ines Osinagarena. Egunero aditzen dut musika. [Eta cd bilduma handia erakutsi dit] Orain dela gutxi, berriz, Ataunen izan naiz, oso gauza polita aditzen: Maximo Aierbek egindako kantata bat, Domuit vascones. Oso polita. Joxe Arratibelen liburua? [Kontu zaharrak] Irakurri ez dut egin, baina ipuinak aditu ditut, baten batek grabatuta... Ikusten duzu hau?

Termometroa...

Bai. Eta, orain, aditu! [Termometroa abiarazi du. “*Mido la temperatura*”, erdaraz gailuak] Nik hau euskaraz nahi dut. Ez dago! Berdin ordularia. Ez dago ordua euskaraz ematen didan erlojurik. Gaur egun! Horrela gaude. Eta beti horrela.

Eta nire herria ezagutzeko mapa ez izatea oso adierazgarria da.



Filmak eta dokumentalak, audioz deskribatutakoak, gero eta gehiago daude, hizkuntza askotan. Euskaraz ia ez dago batiere”

Munduan ez dago estaturik, hiritarrari mapa eskura jarriko ez dionik. Bada, guretzat ez dago. Gure herriaren berri izan nahi dugu. Beste adibide bat: ondare historikoa. Arantzazu nolakoa den ez dakit. Ez al dago Arantzazuko maketarik? Arantzazu, bat esatearren!

Euskal Herriko ondare historikoa nolakoa den, nik ezta ideiarik ere! Eta hori beste toki batzuetan gertatzen da? Ez! Itsua zara eta Burgosko katedrala nolakoa den jakin nahi duzu? Baduzu maketa! Kremlina nolakoa den jakin nahi duzu? Baduzu maketa!

Zer deritzozu adimen artifizialari?

Txistea etorri zait oraintxe: gure problema ez da adimen artifiziala, adimen naturala baizik. Kar, kar... Itsuon funtzioetako bat da itsu ez zaretenok kontsolatzea. Diskurtso ideologiko eta estandarizatueta agertzen ez dena erakusten duen literatura da niri gehien interesatzen zaidana. Bernardo Atxagaren poema: “Esaidan, zoriontsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak? Ez al duzue karramarroekin ametsik egiten?”

Eta ume itsuekin?”. Ez dakit Atxagag zer pentsatzen duen ume itsuez, baina oso ondo jasota dago galdera... Zirimiria etengabea da, eta blaitu egiten gaitu. 25 urteko neska edo mutila, kristoren curriculuma duena, ahal den moduan lanean, prekario, baldintza eskaseta... eta, egoera hori dela, enpresariak itsuak hartu behar ditu lanean?...

Gizartea duzu jomuga...

Zer nahi du gizarteak itsuengandik, aniztasun funtzionala dutenengandik? Zer egin nahi du haiekin? Hori ez du enpresariak konponduko, ez kooperatiba txintxo batek ere; kooperatibak ere ez du egiten, baina egingo balu ere, zer?! Zein dira gizarte honen balioak? Eta halakoxea da egoera Europa osoan, salbu eta han ez dagoela kupoirik. Izan ere, kupoia saltzea penintsulako tradizio bati lotuta dago: joan den mendearen hasieran indartu zen Andaluzia aldean, Katalunia hegoaldean, eta abar. Hortik, bizimodua ateratzeko modu bat sortu zen, eta subjektibitate bat. Eta han eta hemen irakurritz jakin dudanez,

Guregan eragin handiagoa du, oraindik ere, ONCEk, hemengo euskal administrazio orokorrak baino"

subjektibitate horretan ere bi joera izan dira: jaten ematen digun kupoiari eutsi –eta oraindik ere ez da joera hori aldatu–, edo bestelako bideak saiatu.

Zertan da tradizio hori Euskal Herrian? European kupoirik ez dagoela esan duzu...

Ez da ikertu, baina penintsulako beste toki batzuetan izan den tradizio hori ez dago Euskal Herrian. European, berriz, kupoirik ez, eta itsuentzako zentro bereziak daude, baldintza berezietan lanean, estatuarenak, gehienbat, produkzio molde partikularren arabera lanean... “Integrazioa” esaten zen lehen –batak bestea bereganatzea da integrazioa–, eta “inklusioa” orain, baina inklusiorik ere ez dago. Euskal Herriko daturik ez dugu, datu errealak, estatistikak, estudioak... Gu ez gara Euskal Herri politikoa eta instituzionalen bizi.

Erretiroa hartu zenuen...

Bai. Garaia, 2002 ingurua. PP zen Espainiako Gobernuaren agintean. ONCEk gobernuari esan zion esplotazio karga handia zeukala, eta ezin zuela karga hura eraman, gobernuak kudeatu beharko zuela. Gobernuari izua sortu zitzaion, eta bere modura bideratu zuen egoera. “Zein dituzu esplotazio karga handienak?”, gobernuak ONCeri. Eta erakundeak: “Soldatak”. Eta zer egin zuten? Erretiroa aurreratzeko plana asmatu, eta gastu gehien eragiten zuen jendea gizarte segurantzara transferitu. Espainiako gobernuaren egin zen 52 urtetik gorako jendearen kargu. Besteak beste, hainbat urtetako kotizazioa egin zuten. Garai batean kupoia saltzeko besterik ez genuen balio, eta, gero, horretarako ere ez. Horixe izan da gure ibilbidea, baina egia da: bidearen bukaeran, orain, pentsio ona jasoz bizi gara.

Irtenbiderik ez al dago itsu jaiotzen denarentzat?

Lana da gakoa, eta horretaz LABek badu proposamen bat oso interesgarria nire iritzirako: enplegu bermatua. Alegia, administrazioek hiritarrei enplegua bermatzea da gakoa. Proposamenaren arabera, hiritarrari eskatzen zaio bere burua formatzea, eta horretarako dituzten hainbat formazio tresna, eta, ondoren, lana izateko bermea du. Planteamendu interesgarria iruditzen zait. Besterik da asmoa gauzatzea! Hartu eta ematea da kontua. Gizartearen arabera, ordea, guk –“ezindu”, “elbarri”, “ezgaitu”... hainbat izen jaso ohi ditugu–, ez dugu ematekorik. Eta horixe da ikaragarriena, pertsona bati esatea ematekorik ez daukala. Gurea, hortaz, betebeharrak problema da.

Hamaika ditut elkarrizketa eginak. Lehenengoz ari naiz itsu batekin elkarrizketan...

Hamaika elkarrizketa eginak, lehenengoz itsu batekin ari zara... niretzat problema ez da hori, esan dizudan horixe baizik, elkarrizketatzeko hots egin izan didatenei esaten diedana: “Zergatik elkarrizketatu nahi nauzu? Ez naiz ezaguna, ez naiz idazle ospetsua, ez ingeniaria... Bazterretik baztertera ibili naiz...”. Eta, izan ere, horixe da egia, itsuok aparte bizi gara, horixe da errealitatea.

Barkatu urte hauetan guztietan bazterrean edukitzeagatik, jendea zaitugu. Ez zaitugu ikusi, gure bi begi handi ederrokin ere, ez zaitugu ikusi. Eta eskerririk asko gu zure etxean hartzeagatik.

Estimatuta dago. Irakurriak dituzten lanak, asko estimatzen dut ARGIA, eta benetan esan nizuen: deskuidoan iruditzen bazaizue hitz egin dugunak ez duela balio, ez duela argitaratzea merezi, ez publikatu. Berdin-berdin estimatuko zaituztet, eta estimatuko dut zuen lana, eta ARGIA... Zer, garagardotxo bat-edo nahi duzu? Gaur bero dago... ●





Pluribertsitatea

Irailaren hasieran *La rebelión de las flores* dokumentalaren aurkezpenaz gozatzeko aukera izan nuen Bartzelonan. Bertan, herri maputxeko emakumeak euren eskubideen alde egiten ari diren borroka azaldu zuen Moira Millán aktibista eta liderrak. Hamaika ekimenen artean, pluribertsitatearen sorrerak jakin-minez bete ninduen, “unibertsitatea ez, pluribertsitatea”, errepikatu zuen ozen Moirak. Proposamen horren arabera, unibertsitateetan erakutsi ohi diren ezagutzak, ikerketa metodologiak eta horiek bizitzan izan ditzaketen aplikazioak, Mendebaldeak zehaztutako ereduetan oinarritu izan dira. Hainbatetan, beste herrialdeetako erreferentzia kulturalak alboratuta, eta gehienetan, merkatuen ideologiari jarraituta, objektiboa izango balitz bezala.

Planteamendu horrek baditu intereseko hainbat ezaugarri. Besteak beste, ezagutzaren jatorriaren aniztasunari ematen dion balioa, eta bereziki, landaguneetan antzinatek legokeen jakintzari, edota hainbatetan baztertuak egon ohi diren kolektiboen begiradari. Proposamen horrek elkarriketa dakar plazara, elkar begiratzea, elkar entzutea, eta patxadaz, hausnarketa kolektiboetatik bide berriak eraikitzea.

Gurean, Euskal Herriko Unibertsitatea Shanghaiko zerrenda prestigiotsuan sartu da beste behin ere. Aurreko urtean munduko lehen 400 unibertsitate onenen artean bageunden ere, aurten postu

Unibertsitateko ikasleen profila geroz eta pluralagoa da, zorionez, baina aniztasun horri bizkarra emanez jardun ohi gara gehienetan, tamalez

batzuk jaitsi omen ditugu. Azpimarratzekoa da ranking horrek, nagusiki, ikerketaren inpaktuan jartzen duela arreta. Ebaluazio irizpideetan irakaskuntza jarduera kontuan hartuko balitz, zerrendak izango lukeen itxura ikustekoa litzateke. Eta noski, batek jakin zerrenda horretan posturik lortuko ote genukeen.

Ikerketa jarduerak, oro har, irakaskuntza jarduerekin alderatuz, errekonozimendu handiagoa dute. Unibertsitateen arteko bikaintasun deritzonaren lehia, aipatu bezala, ikerketan oinarrituta dago. Eta ez hori bakarrik, inork bide akademikoan aurrera egin nahi badu, doktorego-tesiaz gain, kanpo-agentzien ebaluazio positiboa lortzeko indexatutako aldizkarietan artikulatuak izatea ezinbestekoa da. Ikerketako lasterketan aitortpenak jasotzen joan ahala, irakaskuntzan eman beharreko orduak murriztu ohi dira, nolabait, kalitate handiagorekin ikertu ahal izateko. *Sari mo-*

duko bat, alegia. Kurioski, irakaskuntzan lortu ahal diren aitortpen urriek ez dute inolako murriztapenik ikerketa orduetan.

Egiantan, irakaskuntza jasaten ari den drama areagotuz doa. Horren isla da, esaterako, azken urteotan ordezkapenetan ari diren lagunen lan-baldintzen okertzea; Espainiako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikotik egindako interpretazioarekin, gainera, are negargarriagoa bihurtu da haien egoera (hamaika komunikabidetan modu argian azaldu da problematika). Horretaz gain, hainbat gradutako lehen urteetan dauden ikasle kopuru altuek zail egiten dute irakaskuntzaren kalitatea bermatzea. Seinale horiek guztiak nabarmen uzten dute irakaskuntza maila honekiko dagoen interesa eta ardura ez direla nahikoak.

Halabeharrez, irakasteko modua direktiboagoa bilakatzen ari da, eta tarte gutxi dago egon litezkeen zalantzak kolektiboki lantzeko, ikuspuntu berriez patxadaz jarduteko, edota espazio haueetan ezinbestekoa den ikuspuntu kritikoa sustatzeko. Ikasleen profila geroz eta pluralagoa da, zorionez, baina aniztasun horri bizkarra emanez jardun ohi gara gehienetan, tamalez. Ikertzen dugun hori nazioartean argitaratzeaz gain, gure ikasleen artean *eman eta zabaltzea* ezinbestekoa izango da denon artean unibertsitate honen bertsio plurala eraikitzeko. ●




IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Turismofobia eta ardura pertsonala



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

U da eta jai sasoi pasaturik, hasiak gara herria berreskuratzen. Amaitu dira hondartzarako traste artean manifestazioan antzera doazen uholdeak. Amaitu dira jatetxeak gainezka, tragoa eskatzeko komeriak eta erosketak ordaintzeko ilarak. Amaitu dira “barkatu, baina amaitu da” erantzunak. Turismoaren goi-denboraldia fini da.

Turismofobia berba modan dago. Telebistan, gobernuek emandako datu “onekin” batera pieza txikiren bat dator lantzean behin, ea gurean turismofobia zabaldu ote den. Baina nik oraindik ez dut ezagutu turisten beldur etxean giltzapetu den inor, turistak gaizkile hutsak direla pontifikatzen duen inor, turista guztiak bota edo hil behar direla esaten duen inor.

Zeren eta *fobia* beldur irrazionala baita. Horixe da, sakon-sakonean, xenofobo eta aporofoboek sentitzen dutena. Baina turisten beldurrik ez dago eta askoz gutxiago beldur irrazionalik. *Fobia* hitza oso erabilgarria izan daiteke gaiaren inguruan sakon ez hitz egiteko, eztabaidak eten eta ekiditeko. Hain fenomeno ezberdinak, denak kutxa berean sartuta.

Izan ere, turismoa egitera datorren jendea ez da txarto trataturik sentitzen,

txarto tratatua izaten ez den heinean. Gehiengo ez bada ere, ez dira gutxi herri osoa euren *resort* edo opor-gune partikulartzat hartzen dutenak, hemen jendea bizi egiten dela ardura barik, eta euren herrietan sekula egingo ez lituzketen gauzak egiten. Horiek ere ez ditugu gorroto, ez gehiegi edo mereziko luketen bezainbeste, behintzat.

Beldurra sortzekotan, turismo neurrigabearen ondorioek sortzen dute. Gure herrietan dagoen lan apur bakarra ostalaritza bezalako sektore prekarizatura mugatzen da. Bigarren sektorea ahulduz doa eta lehenbizikoaren garrantzia, agintarientzat, kanporantz erakutsi ahal ditugun kalitate zigilu eta jatorri izen edo marketara mugatzen da. Turistak erakartzeko –eta lagunengatik poltsikoak betetzeko– edozer da zilegi, dena dago salgai, baita bizitza bermatzen duten biosferaren erreserbak ere. Edozelan, politika anker eta kaltegarrien inguruko diskurtsoa egitea gauza ondo erraza da.

Aurreko udaleko alkateak, EAJkoak, prentsurrea eman behar izan zuen. Ez dago etxebizitzarik merkatuan, ez alokairuan, ez salmentan. Garestiak izatetik bat ere ez egotera pasatu gara. Zelan da posible? Non daude etxe horiek guztiak? Zeren eta etxeak hutsik gelditzen baiti-

ra, habitatzen dituen jendea hiltzen den erritmora, besterik ez bada ere. Gero eta gehiago daude Airbnb edo Booking moduko plataformetan, ez izan zalantzarik.

Alkatearen neurri izarra, jendeari etxeak merkatura ateratzeko erregutzeaz gain, etxeen gaineko zerga igotzea izan zen. 100 euro ordaintzen duenari 150 euro ordaintzera behartzeak ez dirudi eraginkorregia. Ikusteko dago ea udal berriak gai honetan benetan esku sartzeko asmorik edo interesik izango duen.

Gero eta jende gehiagok nahi du otzara jarri urrezko arrautzak erruten dituen oiloaren popan. Eta honetan ez dago ezberdintasun handirik batzuen eta besteen boto emailen artean. Akaso, horietako batzuk turismoaren inguruko lehengo diskurtsoa egiteko gai dira, turistaritza gau bakoitzeko 100 euro baino gehiago kobratzen diozkioten bitartean.

Eta bai, instituzioek daukate ardurarik nagusia, baina besteekiko eta herriarekiko ardura pertsonalik ezak ere eraman gaitu gauden egoerara. Ahalik eta diru gehien ahalik eta buruhausterik gutxienekin. Auzokoak egiten badu, nik zergatik ez? Galdera hau egitetik Ayusozaileen “askatasuna!” oihukatzeraz ez dirudi tarte handirik dagoenik. ●

Mirarien zain?



**MIKEL OTERO
GABIRONDO**
LEGE BILTZARKIDEA

Duela gutxi, larrialdi klimatikoaren sortzen duten isuriaren azken datu ofizialak atera ditu Jaurlaritzak, 2021ekoak. Isuriek %8 egin dute gora berriro. Are gehiago, dagoeneko badakigu 2022. urtean berriro gora egin dutela, Europar Batasunak araututako sektoreen isuriek %15 egin baitute gora (araututako sektoreak isuri guztien %40tik gora dira). Beraz, pandemia garaiko isuriaren murrizketak berdindu eta pasa ditugula esan dezakegu.

Argi luzeagoa ipinita, azken hamarkadan isuriek %9 egin dute behera. Datu onak? Bada, erritmo honi jarraiki, 24 hamarkada behar ditugu ditxosozko neutraltasun klimatikora heltzeko, non isuritakoa xurgatutakoarekin konpentzatuko litzatekeen. Baina 24 hamarkada ez, 24 urte ditugu helburu hori betetzeko. Erritmoa hamar aldiz biderkatu behar da. Erraz esaten da.

Klima larrialdiaren aurkako borroka aise galtzen ari gara. Bai komunitate global gisa zein euskal komunitate gisa. Baina berriro gogorarazi nahi dut borroka hau ezin dugula galdu, galtzeak dena galtzea ekarriko luke eta. Gauzak horrela, irtenbideak mamitzen baino errudunak seinalatzen aritzeko joera zabaldu horrek gero eta atsekabe handiagoa sortzen dit. Klima aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenak aspaldi

argitu zuen auzia, erantzukizun amankomunak baino ezberdinak ditugu, eta euskaldunok, kapitalismo globalaren alde pribilegiatuan bizi izan garen neurrian, erantzukizun berezia dugu.

Antzerki klasikoan, *deus ex machina* adieraz ezagutzen zen trikimailua erabiltzen zen muturreko egoerei irtenbidea emateko. Gidoiarekin inolako loturarik gabe, makina baten laguntzaz zerutik jainko bat ateratzen zen egoera katramilatu bati irtenbidea emateko. Oraindik ere hainbat jende “*deus ex machina* teknologiko” baten esperantzara kateatzen badu ere, dagoeneko argi dago esfortzu eraldatzaile amankomun eta jarraitu bat besterik ez zaigula geratzen irtenbide gisa.

Egin behar denaren inguruan zirriborro batzuk baditugu. Badakigu kontsumo material eta energetikoak asko murriztu behar ditugula, badakigu baliabide fosilak erabiltzeari uko egin behar diogula, badakigu berriztagarriak hedatu behar ditugula. Baina oraindik inteligentzia kolektiboaren erabateko aktibazioa behar dugu ibilbidea mamitzeko. Deliberatu dezagun prozesu honen xehetasunen inguruan, har ditzagun erabakiak eta egin dezagun bidea behin goz, dena galtzearen errua norena izan zen argitzeak ez baitigu inolako kontsolamendurik emango eta. ●

Tropikal



ITXARO BORDA
IRAKASLEA

Bero handien ondotik, euriak etorri dira. Euri mantso, lodi eta beroak. Besoak zabalik hartu ditugu Aturri hegi hauetan. Bat-batean, horituak ziren bazterrak berdetu zaizkigu, adinekoak eta haurrak berriz ikusi ditugu arratsaldeetan paseatzen, ulu burrunbariak eta mustika ziztariak esku zainartez kalitzen zituztela. Batzuek, Atlantikoan, tornado gris eta bihurriak filmatu dituzte, aroa aldatzen dabilelako seinale. Zenbaiten ustez tropikalitasun zerbaiti buruz goaz. Zanza-zanza...

Artistek hirugarren begia badutela ezin uka. Gauzak, garen oinarritzko biz-

tanleok baino anitzez lehenago asmatzen dituzte. Bizkitartean, eguraldi goha eta sapatu honek, 1980ko hamarkadan Hertzainak talde mitikoak kantatzen zituen etorkizuneko Euskadi haren ezaugarri koloretsuak oroitarazten dizkit niri: “Egun batean Euskadi izango da libre eta tropikala” abesten zuten, Bermeoko iguana pipilean eta Gernikako Palmondoa arraiki irudikatuz. Talde gasteiztarraren “astakeria” musikala egia bilakatzen ari da, behiala bihotzean baizik ez geneukan tropikalitasun horrez lurraldea troxatuz.

Piña Colada bana? ●

Bidegi



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Trantsizio garaian *Nafarroa Euskadi da* ezarria urratu arte oihukatu genuenok beti begiratu izan diogu begi-zeharka, baina atentzio bereziz, “Komunitatean” gertatzen denari –hala esaten dugu batzuetan; beste batzuetan “Baskongadetan”, are “EAE”n ere, izendatzeko manera horrek estaliko balu bezala gure proiektu nazionalaren porrot historikoa, edo itxaronaldi etinoa, nahiago baduzue–.

Bere garaian, gure eztarriek eskertuko zuketan inoiz zer ginen edo zer izan nahi genuen galdetu izan baligute, gure okerraren tamaina zenbakietan neurtu ahal izateko baino ez bazen ere. Gaur egun, aritmetika horiek ez gaituzte hainbeste arduratzen, kopuru edo ehuneko baten gorabeherak ez duelako gauza handirik aldatuko gure ohiko babesgabetasun metafisikoa. Izan ere, zer garaigu? Nafarrak, noski, baina Nafarroa itsasorako aterabiderik gabeko zulo bat da –esateko modu bat da–, eta ez zaigu aski; euskaldunak, ozta-ozta, euskaraduna izatea gero eta gutxiago delako euskalduna izateko bermea, eta bestela galdetu ETBkoei eta enparaei; Euskadikoak ez,

Bidegi kasuaren ibilbide judiziala ezaguna da, erreakzioak ere bai. Barkatu esatea, baina... A zer *espektakulu botxornosua, anai-arreba baskongadook!*

jakina. Euskal Herrikoak? Askorentzat nekez, haientzat Euskal Herria Euskadiren sinonimoa baita. Euskadi-nahiak, igual? Baina nork nahi du gabezia edo hutsune batek definitua izatea?

Nafar gaiztoak gara, gainera. Errazago egiten ditugu lagunak Mutrikun edo Apatamonasterion Fustiñanan baino. Izan ere, non dago Fustiñana? Fustiñana existitzen denik ere ez genuke sinetsiko, lau urtean behin hauteskundeak egingo ez balira. Halakorik egiten dugun bakanetan, Aragoi ibaia hegorantz zeharkatzea Mississipi bera zeharkatzea baino

gogorragoa egiten zaigu, eta aldiz, maite dugu maite Lizarrustitik beherako pagadia, hain gureak bezalakoa...

Gure deserrotze eta nortasunaren lautotze horrek, beraz, Euskadira begira jartzten gaitu usu, eta han gertatzen dena kasik gurean gertatuko balitz bezala bizi ohi dugu, ez bakarrik nostalgiaz, baizik eta Osakidetzak osasun zentroak ixten badiitu –demagun–, norbera Osasunbideak emango duen hurrengo pausoaren gainean parioak egiten hasten ahal delako.

Hortaz, ez da batere harritzekoa Bidegi auzia interesez segitu izana. Kasuaren ibilbide judiziala ezaguna da, erreakzioak ere bai. Barkatu esatea, baina... A zer *espektakulu botxornosua, anai-arreba baskongadook!* Irogailuan puzker isil baten usaina aditzen dela esatea motz gelditzen da. Epailleak agindu largespena jendea tontotzat hartzetik gora dago. Hori jendea kaka egitea da, burutik behera.

Enfin. Mendebaldetik sentimendua elkarrekikoa dela erantzungo didate, ausaz, baina itsasorik gabeko nafartasun kamuts, txistorrizatu eta afrus bat arrastaka eramateko kondena tokatu bazait ere, ez dut Euskadi horretakoa izan nahi. ●

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Urriaren 7tik abenduaren 2ra

Irurita · Viana · Uhartea · Leitza
Altsasu · Agoitz · Lesaka · Iruñea



Antolatzailea

Laguntzailea



Nafarroako
Bertsolari Txapelketa
2023



MONDRAGON

Kilometroak eginez

MONDRAGONen kooperatibok bidea egin dugu euskal kultura, ohiturak eta hezkuntza babesten: Kilometroak! Aurten Orereta-Erreterian dugu hitzordua: Erriotik, herri. Erriola.



ARRAZAKERIA FRANTZIAKO POLIZIAN

Izaera sistemikoa aitortu ezinean

Aurten berrogei urte Frantziako *banlieue* edo auzo popularretakoek “Berdintasunaren Aldeko eta Arrazakeriaren Aurkako Martxa” burutu zutela Marseillatik Parisera arte. Aldarrikapenen artean zuten polizien gehiegikerien bukaera. Orduz geroztik testigantzak, ikerketak, bideo-grabaketak biderkatu besterik ez dira egin, ordukoa berresteko: arrazakeria arazo sakona da Frantziako Polizian. Frantzian beltz ala arabiar batek zuri batek baino 20 aldiz kontrol gehiago izango ditu. Nahel Merzouk, Alhoussein Camara, Mohamed Bendriss dira, besteak beste, aurten poliziek tiroz hildako hiru gazte arrazializatu hobengabe. Panoramarik begira jarri gatzazkio ulertu nahian zergatik ez zaion arazoari benetako konponbide politikorik ematen.



VALERIE DUBOIS

Polizia eta arrazakeria Frantzian” izenburua du Frantziako Gobernuak gorderik atxikitako dokumentuak. Arrazakeriaren aurkako ministerioarteko delegazioko batzar zientifikoak 2021eko uztailean idatzitakoa da, baina isilean atxikitzea erabaki zuten gobernukideek. Aurtengo udan osoki plazaratu zuen *L’Humanité* komunikabide ezkertiarrek, *Charlie Hebdo*-k txosten horren aipamena eginik. “Hilabetetako lana biltzen du. Polizia, ikerle eta elkarteetako arduradun batzuk onartu dute errepublikaren oinarrian dagoen gai minbera horretaz mintzatzeari. Guztia zakarrontzira bota behar genuen? Ezin onartuzkoa da”, dio haserre ikerlearen artean den Smain Laacher soziologoak. Argi du: “Moralki eta politikoki, akatsa izan da txostena publikatu ez izana”.

AEBetako Poliziak George Floyd afroamerikarra ito izanak haserre mundu mailara zabaldu zuen 2020ko maiatzean. Orduan erabaki zuen Laacherrek soa Frantziako Polizian jartzeari, argitzeko ea hor ere arrazakeria sistemikoaz hitz egin zitekeen –“Egun argiz izandako hilketa horrek arrazakeria sistematiakoaren berri eman dio mundu osoari”, adierazi zuen Joe Biden presidentek Floydren hilketaren biharramunean–.

Eranskinak kendurik, zazpi orriko dokumentua da eta 21 elkarrizketa ditu oinarrian. Poliziaren esparruko eragile esanguratsu andana entzun dituzte, tartean, DGPN Polizia Nazionaleko Zuzendaritza Orokorreko ikuskaria zein Polizia eskoletako hainbat arduradun. Txostenak bere horretan arrazakeria sistemikorik ez dagoela baldin badio

ere, arrazakeriaren presentzia baieztatzen du: “polizia arrazistak” badaudela eta oro har, polizien formazioan eta seipenean arrazakeria saihesteko lanketa nahikorik ez dela bideratzen.

Txostena gorderik atxikitzeaz gain, oinarrian dagoen batzar zientifikoak desegin zuen gobernuak aurtengo urtarrilean. “Inolako azalpenik gabe bideraturiko desegite horrekin, gobernuak argi eta garbi erakutsi digu edozein eztabaidari eta kritikari uko egiten diola. Koldarkeria intelektualaren adibide bikaina”, Laacheren hitzetan.

Alta, arazoa hor dagoela geroz eta nabarmenagoa da. Bideo grabaketek argira ekarritako jarrera bortitz arrazistak; polizien arteko Whatsapp taldeetako adierazpen arrazistak; eskuin-muturreko Alliance Polizia-sindikatuaren emaitza esanguratsuak –botoen %49,45 esku-



NEMA BRAHIM

HEDI, LAU POLIZIEK JIPOITURIKOA. Burura tiro egin eta lau polizik jipoitu zuten Hedi, Nahelen heriotzaren ondorengo matxinaden testuinguruan –bera ez zebilen kale borrokan–.

ratu zuen abenduan, Unsa Police sindikatuarekin batera osatu hautagaitzarekin-; *banlieue* edo auzo popularretakoek pairaturiko itxuraren araberrako kontrolen frogak... guztiak bat datoz baieztatzeke arrazakeria arazo larria dagoela Frantziako Polizian. Funtsean, uztailean Yougov-ek egindako inkestaren arabera hamar herritarretatik zazpi uste dute hori horrela dela. Nazio Batuen Erakundeak abisua luzatu zion Pariseri ekainaren 30ean: “Bada garaia polizien artean dagoen arrazakeria eta diskriminazio arazo sakonei begiratzeko”. Nazio Batuetako giza eskubideen goi-komisaria Ravina Shamdasani piztu zuen alarma. Berehala gogorki kritikaturikoa izan zen eta “oinarririk gabekotzat” jo zituen gobernuak bere adierazpenak.

POLIZIA KONTROLAK JUSTIZIAREN AITZINERA

Kontrol diskriminatzaileak bukatzeko neurriak eskatu zizkieten 2021eko urtarrean sei eragilek Frantziako Gobernari. Tartean daude Amnesty International edo Human Rights Watch Gobernu Kanpoko Erakundeak eta auzoetako hainbat elkarte. Erantzunik ez ukanik, Justiziarren aitzinera eraman dute arazoa. Ez da lehen aldía, eta ikusirik gobernuakideen jarrera ez da azkena ere izango.

Banlieue-etako lekukotasunetatik administrazioako bulegoetako ikerketetarako badaude itxuraren araberrako kontrolen frogak. Frantziako presidentek izendaturiko Eskubideen Defendatzailerak ere plazaratu zuen datu kezkarria 2017an: Frantziako Estatuan gazte beltz ala arabiar batek zuri batek baino hoge aldiz aukera gehiago du Poliziaren kontroltan geldiarazteko. Amnesty Internationalek argi du: “Diskriminazio-ezaren printzipioa bermatzen duen segipen zorrotzik ez dagoenez, poliziak eskumen zabalegiak ditu eta horrek ematen die kontrol diskriminatzaile horiek egiteko aukera”.

Jadanik 1992an txosten batek zioen “ezin ukatuzkoa” zela Poliziaren “eguneroko” arrazakeria. Urte horretako Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioak eskaturiko ikerketan irakurri daitezke baieztapen horiek. Txostenean “kultura arrazista” terminoa erabiltzen dute. Ondokoa ere nabarmentzen dute: “Hierarkian goian direnen pasibotasunak, edo konplizitateak, ahalbideturikoa da”.

Hain zuzen, 30 urte pasa badira ere, begien ixte horrek bere horretan segitzen du. Gainera, Polizia-sindikatuak gobernuari begira duten eragina ikusirik, pasibotasun edo konplizitate hori esparru politikoan ere sendi da. “Gobernuek

ongi tratatu nahi dute Polizia, horregatik ia ez dute gai minberatsu horiei buruz hitz egiten”, zioen 2020an Carole Reynaud-Paligor historialariak France 24 telebistan. France TV-k ekoizturiko *Police: quand les syndicats font la loi* (“Polizia: sindikatuek legea egiten dutenean”) dokumentalak aurkezten digu Polizia-sindikatuaren menpeko eta manuko dela Barne ministerioa. Arrazakeriaren arazoa mahai gainean ez jartzeko erabakia hobeki ulertzen da hori jakinda.

Oroit gara zer nolako erantzuna ukan zuen 2020ko ekainean Barne ministro Bernard Castanerrek, erabaki zituenean itotzeko teknikaren debekua eta “frogaturiko arrazakeria” kasuen zigortzea: gauean berean sindikatuarekin batu behar izan zuen; protestarako eta desobedienezko deia luzatu zieten sindikatuek poliziei, eskuburdinak lurrera botaz ekintza sinbolikoak burutu zituzten ezker eta eskuin; eta azkenean, Barne ministro kargua kendu zitzaion.

Adierazpen horiek egin zituen bideo-grabaketa bati esker ezagaturiko indarkeria eta arrazakeria kasu baten biharamunean: kontrol batean ageri dira hiru polizia Cédric Chouviat itotzen, errepikaturiko “itotzen ari naiz” abisuei kasurik egin gabe. Biharamunean hil zen ospitalean 42 urtekoa. Baina berdin



BRAHIM CHANCHABI

1983KO MARTXA. Berdintasunaren Aldeko eta Arrazakeriaren Aurkako Martxa burutu zuten 1983an Marseillatik hasi eta Parisera arte. 100.000 lagun batu ziren hiriburuan. Ordungo aldarriek gaurkotasun handia dute oraindik.

dio: gehiegi hitz egin zuen Castanerrek, Polizia-sindikatuak gustuko ez duten adierazpena egin zuelako. Aulkia hartu zion Gerard Darmanin berehala lerrokatu zen: “Pertsonalki, Polizia-bortizkeria hitza entzuten dudanean itotzen naiz. Bai Poliziak indarkeria bideratzen du, baina indarkeria legitimoa da”.

POLIZIA-SINDIKATUEN BOTEREA

Segurtasunaren Beauvau deitu jardunaldiak martxan zirela jaso zuten “Polizia eta arrazakeria Frantzian” txostena gobernuak. “Segurtasunaren politika publikoa modernizatzeko” antolatutako zituen Emmanuel Macronek hausnarketak horiek, beti ere “polizien, jendarmeen eta frantses guztien mesedetara”. 2021eko otsailetik irailera zazpi mahainguru bideratu zituen: polizia eta herritarren arteko harremanak; Poliziaren eta Jendarmeriaren segipena; Polizia eta Justiziaren arteko harremana; kontratazioa eta formazioa; arrisku psikosozilogikoen aurrean poliziaren babesak; ordenuaren mantenua; barne-kontrola; baldintza materialak eta bideo grabaketak.

Ez zen hitz egin Polizia-indarkeriaz – alta, auzo popularretatik atera eta hirien erdiguneetan ere begibistako bihurtu zaigu, batez ere Jaka Horien mugimenduetan geroztik– ezta arrazakeriaz ere. Are

“
Genealogia historiko bat dago: [esklabotza garaia] milizak, Aljeriarrak torturatu eta ito izana, eskuin muturreko sindikatuen onartzea...”

Françoise Verges

gehiago, poliziei babes osoa berresteko unea izan zen. “Konfiantza osoa” bideratu zien Jean Castex Lehen ministroak: “Nire uste sakonez, barne segurtasun indarren gehiengo handiak du egunero lan bereziki zaila egiten eta hori arauak zorrozki errespetatuz”. Hots, “Polizia eta arrazakeria Frantzian” txostenak zekarrenak ez zuen lekurik hor.

Polizia-indarkeria eta arrazakeria barnebiltzen dituen Michel Zecler rap-ekoizleak pairatutakoari Macronek emandako erantzuna izan zen *Segurtasunaren Beauvau*-a. 2020ko azaroaren 21ean lantokira zihoala, hiru poliziek geldiarazi, sei minutu luzez jipoitu eta irain arrazistez estali zuten. Bideozaintzarako kamara batek grabaturiko irudiei esker jakin zen egia –polizien bertsioaren arabera “indarkeria” eta “oldarraldia” burutu zituelako jipoituak–. Azaroaren 30ean aitortu zuen Barne ministro Darmaninek: “Baliteke aspalidikoak diren arazo estruktural batzuk egotea”. Baina hori baino gehiago ezin zezakeen erran, eta are gutiago egin. Castanerrek berandu ikasi zuen, baina ondorengoek badakite.

Argi gelditu zaigu uda honetan, Nahel Merzouk 17 urteko frantses-aljeriarraren heriotzarekin. Hor ere pertsona batek unea filmatu izanari esker plazaratu zitzaigun egia: kontrol batean, tiroz hil zuten gaztea ekainaren 27an. Lehen

adierazpenean “ezin barkatuzkotzat” eta “ezin ulertuzkotzat” jo zuen gertatutakoa Macronek eta hildakoaren hurbilekoei “sostengua” eta “atxikimendua” bideratu zizkien. Baina, Polizia-sindikatuak haserreturik, berehala kokatu zen berriz beren aldean, biktimarentzako urrikimendu oro haizatu eta poliziak itsuki sostengatu zituen.

Alliance eta Unsa sindikatuek zabalduko agiri ofizialak herritar, eragile sozial, eta hautetsi andanaren kexua eta harridura eragin bazituen ere, presidentek bere horretan segitu zuen. Gerra zibilerako deia zirudien polizien mezuak: “kaltekorren” eta “basatien tropelen” [banlieue-etako matxinatuak] aurkako “gudurako” deia luzatu zuten.

Bederatzi gau iraun zuten matxinadetan. Gobernuak errepresiora mugatu zuen erantzuna: 40.000 polizia eta jendarme mobilizaturik –2005eko matxinada gogoangarrietan baino hiru aldiz gehiago– eta 4.000 atxiloteta zortzi egunez, erdia baino gehiago epaiturik eta 1.800 kartzelara kondenaturik. Arreta gurasoengan jarri zuten gobernuak, atxiloturiko umeen gurasoak zigortzeko bidea irekiz –laguntza sozialak moztu ala “bi urteko zigorra eta 30.000 euroko isuna”–. Orduz geroztik, hirigintzako politikari dagokionez, ez da ezer berri planteatu. Ezta arrazakeriari eta indarkeriari dagokienez ere.

Egun horietan hamar salaketa jarri ziren IGPN polizien inspektoretzan, eta ikusteke dago zer nolako erantzuna emanen zaien. Kasu larrienei dagokionez, hildako bat, herritar bat koma egoeran eta hamarnaka kolpatu eragin zituen errepresioak. Poliziak LBD bola jaurtigailuz buruan kolpaturiko eta ondotik jipoituriko Hedi R.-ren kasua dugu gehien aipaturikoa. Bideozaintzarako kamara bateko irudiek eta lekukoaren testigantzek polizien bertsioa gezurtaturik, lau polizia galdekatu zituzten. Hiru kontrol judizialpean aske eta laugarrena, LBD bola jaurtitzaila, preso sartzeko erabakiak Polizia-sindikatuaren haserrea piztu zuen eta berriz abiatu zuten protesta mugimendua: lan uzteak edota zerbitzu minimoak errepikatu zituzten ehunka poliziek. Sindikatuekin bildu behar izan zuen Barne ministroak uztaila bukaeran, eta satisfos atera ziren bilerratik: “Entzun nahi genuena erran digu ministroak. Gurekin lerrokatu da”, Alliance-ko bozeramailearen hitzetan. Azkenean, aske utzi zuten laugarrena ere, kontrol judizialpean.

METATUZ DOAZEN GEHEGIERIAK

Nahelen hilketa izan da matxinaden detonagailua. Baina beste bat izan zitekeen, berdin-berdin. Hogei egun lehenago, 19 urte zituen Alhoussein Camara ginearra hil zuen tiroz Poliziak. Iaz 39 herritar hil zituen Frantziako Poliziak, eta aitzineko urtean 52. Eta gerora ere bide beretik jarraitzeko arriskua dago, ikusirik oinarrian diren arazoei ez zaiela begiratzen: hiritik bazter, ghetto batzuetan metaturik mantentzea migratzaileen alaba-semeak; lan mundutik baztertuak izatea; polizien kontrol diskriminatzaile errepikakorrek jasatea; zerbitzu publikoak auzo horietatik ia desagerrarazi izana; komunikabideetan zabalduriko gaizkilearen eta basatiaren estigmak pairatu beharra, eta abar.

Politologo dekolonial Françoise Vergesek dio iraganean dagoela gaitz horren oinarria: "Errotik arrazista den zeeor dago Frantziako Poliziaren erakunde. Genealogia historiko bat ageri da [esklabotza garaiko] landaketetako miliza armatuetatik hasi eta Polizia kolonial, kolaboratzaile, faxista eta antisemitaraino. Aljeriarrak torturatu, hil eta ito zituen, eskuin muturreko sindikatuak onartu ditu. Bere formakuntza militarista eta gizonkerian oinarritua da". Poliziek ezinbesteko zeregina zuten esklabotzak eta kolonialismoak berekin zekarten menpekotasuna bermatzeko. Hor dugu adibidez, XIX. eta XX. mendeetako Indigenaren Kodea, kolonizatuei bideraturik zigor-erregimen berezia.

Orduz geroztik, auzo popularretako errealitatea ere dugu genealogia horren parte. Bigarren Mundu Gerraren bihamunean, lan-indarra lortzeko immigrazio-politika bat bultzatu zuen Frantziako Estatuak -milaka eta milaka langile ekarraziz Aljeriatik, Marokotik, Tunisiatik,



LE BONHOMME LIBRE

POLIZIA-SINDIKATUEN PRESIOA. Azken urteetan begi-bistakoa izaten ari da Polizia-sindikatuak Gobernuarengan duten boterea. Mobilizazioen bidez indar harremana beren alde daukate eta gobernukideek nekez egin dezaketeko polizia-sindikatuaren aurka.

Auzo popularretako "basatien tropelen" aurkako "gudurako" deia luzatu dute polizia-sindikatu nagusiek

Italiatik, Portugaletik eta Espainiatik-. 1960ko hamarkadatik aitzina, hiri bazterretan eraiki zituzten dorreak, bertan aterpetzeko asmoz. Laster agertu zen hirigintza eredu horrek ez zuela kohezio soziala bermatzen eta kaltegarri ere zitzaiela bertakoei. *Sarcellite* neologismoarekin izendatzen hasi ziren bizileku horiek dakarten depresio eta asperdura izaera -Sarcelle *banlieue*-ko batek hitz

hori erabili zuen elkarrizketa batean, bere gaizki-izatea izendatzeko-. 1979an izan zen auzo horietako lehen matxinada, Poliziaren gehiegikeri batek pizturik. 1983ko martxoaren 28an gose greba abiatu zuten Minguettes deitu Lyoneko auzo popularreko gazte batzuek. Ondokoa zioen beren agiriak: "Ekintza hau dator [Polizia] indarkeria berrien ondorioz, eta batez ere etorkin jatorria duten gazteentzako gogortuz doan giroari erantzuteko: arrazismoaren suspertze nabarmena, langabezia, gure auzoen hondatzea, Lyon metropoli-eremuan etxebizitza berriak lortzeko ezintasuna eta beste". Berdintasunaren Aldeko eta Arrazakeriaren Aurkako Martxarekin eman zioten jarraipena grebari: urriaren 15ean 30 lagun abiatu ziren Marseillatik eta 100.000 iritsi ziren Parisera abenduaren 3an. Orduz geroztik 40 urte pasa badira ere, gaurkotasan handiegia izaten segitzen du garaiko irakurketak. ●

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

MUNGIA Urriaren 1ean, domeka, 17:00etan, Olalde Aretoan

Araitx Katarain Mugarza, Izaro Bilbao Arostegi, Koldo Muriñ Aldamiztebarria, Mikel Goiriñena Larrazabal, Peru Vidal Gurrutxaga eta Txaber Altube Sarriñandia. Gai-jartzailea: Zihara Enbeita Gardoki.

ERANDIO Urriaren 22an, domeka, 17:00etan, Merkatu Zaharrean

Ander Sarriugarte Garcia, Garazi Navarro Ugarteburu, Igor Galarza Inbausti, Imanol Uri Albizuri, Paule Ixiar Loizaga Legarra eta Unai Mendiburu Valor. Gai-jartzailea: Idoia Anzorandia Kareaga.

KANPORAKETAK

GERNIKA-LUMO Urriaren 8an, domeka, 17:00etan, Lizeo Antzokian

Arkaitz Zipitria Mendizabal, Bittor Altube Sarriñandia, Ibañ Amillategi Omaetxebarria, Iker Caritagoitia Astigarraga, Julen Ibarquengoitia Odonika eta Mikel Retolaza Etxebarria. Gai-jartzailea: Itxaro Juaristi Olaetxea.

IGORRE Urriaren 29an, domeka, 17:00etan, Lasarte Aretoan

Aissa Inbausti Aburruza, Asier Galarza Garai, Eneko Aldana Carrasco, Janire Arrizabalaga Munduate, Jone Larrinaga Dañobeitia eta Oihana Bartra Arenas. Gai-jartzailea: Amaia Ugalde Begoña.

ARRIGORRIAGA Urriaren 15ean, domeka, 17:00etan, Lonbo Aretoan

Garikoitz Sarriugarte Onaindia, Iker Uriarte Urrutia, Inazio Vidal Gurrutxaga, Iruri Altzerreka Martínez, Josune Aramendi Perez eta Lurdes Ondaro Mallea. Gai-jartzailea: Igor Menika Bengoetxea.

LEKEITIO Azaroaren 1ean, eguaztena, 17:00etan, Ikusgarri Zinemaren

Aitor Arrutia Azkueta, Beñat Bilbao Landa, Eneko Abasolo Txabarri, Koldo Gezuraga Sejjido, Maite Sarasola Isazelaia eta Peru Irastorza Santxo. Gai-jartzailea: Beñat Vidal Gurrutxaga.

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2023.

Antolatzailea



Babesleak
Bizkaia



Loguntzailea



MICHEL KOKOREFF

Polizia-sindikatuakilako kogestio batean dabil botere politikoa



Historia errepikatu zaigu 2023ko [Frantziako auzo popularretako] matxinadekin. 2005ean bezala, Poliziarekin izandako topaketa hilgarri bat izan dute txinparta. Bi haserre erakustaldi horien arteko antzekotasunak begi-bistakoak izan arren, osagai berriak ere agertu dira. COVID-19 biharamuneko lehenak izan dira, eta osasun krisiak ahulduriko auzoetan iragan dira. Aurrekaririk gabeko arpilaketak ere eragin dituzte. Deigarriena, ordea, gobernuaren erantzunaren ahultasuna izan da, segurtasunari mugaturikoa, keinu sendorik gabekoa. Michel Kokoreff soziologoak ondorio argia marraztu dio QG komunikabideari: Frantziako botere politikoa Polizierekiko duen mendekotasun gero eta handiagoak agindutako ukatze kolektibo baten aitzinean gaude.

 BESSMA SIKOUK

Artikulu hau *Quartier Général*-ek argitaratu du eta CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.

Nola esplikatu ditzakegu ekaineko matxinadak?

Kontingentzia eta arrazoi estrukturalak ditugu matxinaden oinarrian. Bistan da, bideo hori daukagu, milioika gara ikusi izan dugunok. Argi gelditu da [Nahelen atxiloketan] ez zegoela obeditzeko errefusarik, ezta zilegizko defentsarik ere. Poliziaren hilketaren bideoa oso laster zabaldu zen sare sozialei esker, eta babiliteke hori izatea 2023ko jazarraldien berezitasuna, 1976-1977 urteez geroztik izandako matxinadekin alderatuta. Aldi honetan ezin izan dute Estatu-gezur batean oinarritu botere publikoen eta jendartearen erreakzioa, 2005ean Zyed Benna eta Bouna Traoreren hilketekin erran izan zuten bezala.

Harridura eragin du, bideoak, gainera, areagotu duena. George Floyden kasuarekin konparatzekoa da, zeinetan ager den hilzorian, zortzi minutu luzez. Nahiz eta nazioartean dimentsio handiagoa eduki Floyden kasuak, kausa berek efektu berak ondorioztatu dituzte. Gazteria/Polizia harremana okertuz doa auzo popularretan. Kontrol diskriminatzaileak eguneroko ogi dituzten testuinguruan, eta Poliziaren hilketa eta gehiegikeria andana bizitu ondoren, Nahelen heriotza izan da sua piztuarazi duen txinparta. Mezua argia dute: nahikoa da!

Badakigu zailtasun sozialak metatzen zaizkiela auzo horietakoei. Arazo horien dimentsio etno-arraziala ere hor da. Ghattizazioa, arrazakeria sistemikoa eta

instituzionala, Poliziak bideratzen ditu, baina bestelako instituzioek ere, eskolak batik bat. Goitik bideraturiko arrazializazio gisa bizi dute beraien esperientzia soziala bertako anitzek: ez dira gainerateko herritarrak bezalakoak eta instituzioek –hau da, Estatuak, Errepublikak– eta komunikabideek eraikitako identitate etno-arrazialari (edota erlijioso) mugatuak dira etengabe. Azken 40 urteetan identifikaturiko eta aztertutako osagai horiek guztiak elkarturik, lehergarri bihurtu zaigu egoera. Ez da batere harrigarria.

Pankarta batek hunki ninduen, arras ongi laburbiltzen digulako egoera: “Zenbat Nahel ez dira filmatuak izan?”. Kontua ez da bideoaren papera goraiatzea, baizik eta ohartaraztea adin txikiko anitz

identifikatu direla Nahelen hilketan; haiek ere kontrolatuak direlako noiznahi, nahiz eta droga-ekonomiaren parte ez izan eta eskolan ibili. Errealitatea biziki konplikatu dute, eta horrelako hilketa bat gertatzen denean, bat-batean egunero hori jasanezina bihurtzen zaie.

Konfinamenduaren ondorioa ere kausitu dezakegu azken matxinadetan. COVID 19-aren biharamuneko lehenak izan dira. Biziki gogorki bizitu zuten pandemia garaia, zigor hirukoitza pairatu zutelako: lanerako lehen lerroan ziren, arrisku gehien hartzen zutenak ziren, eta aldi berean, horiek ziren kontrolatuak, atxilotuak eta zigortuak.

Zein da matxinada horien zentzua?

Matxinada bat herri altxamendu espontaneo da, antolatu gabekoa, Robert hiztegiaren arabera. Hor ditugu, Antzinako Erregimeneko *emozio handiak* edo *go-searen matxinadak* adibidez. Testuinguru ezberdina izanik ere, logika berak funtzionatzen du *heriotzaren matxinada* horietan, hau da, Poliziaren homizidioek eragindakoetan. Istiluak beti dira haserrearen, amorraren, ezintasunaren, injustizia sentimenduaren adierazpena. Apurketak badira, sua pizten da... eta Poliziari jaurtikitzen zaizkio harriak, hain zuzen, haserrearen kausa izateaz gain, Estatuaren beso armatua delako. Baita ez-entzunarena egiten duen hipokrisia sozialarengatik ere. Martin Luther Kingek zioen 1967ko diskurtsoan “jendar-tean entzuten ez direnen hizkuntza da matxinada”.

Sekuentziak badaude matxinadetan: lehenik, emozioarena, herrarena, ulertu ezinarena, injustiziagatik. Beste mugimendu sozialei alderatuta, haserre hori pelikula-mutua da, desfingatu beharrekoa. Alabaina, sinplea da: ez obeditzeagatik poliziak tiroz hiltzeak erran nahi du Nahelen biziak ez duela beste 17 urtekoena bezain bat balio. Beste horiek hobe sortu ziren, bizi maila ertain edo altuko auzoetan dira eta ez dira migratzaileen ondorengoak. Erraz eskuragarri dituzten eraikin publikoen hondaketa dugu ondotik. Matxinada tokian-tokikoa da. Ezohikoa da metropolien zentrorra joatea suntsitzeko. Eskuragarri den horrek erranahi sinbolikoa du, botere publikoa errepresentatzen duelako, beren aurkakotzat, arrazistatzat, xenofobotzat, baita islamofobotzat ere daukatena. Adierazgarria da andaturiko edota lapurturiko komertzioen eta instituzioen mapa: ez dute lekuko komertzio tipia lapurtzen.



E. BRONCARD / HANS LUCAS

Nola esplikatu lapurketak, aitzinekoekin alderatuta berritasun izan direnak?

Bai horrela da, beste fase batean sartu gara, lapurketena. Oroitarazi dezagun Ingalaterran (2011) edo AEBetan (Los Angeles 1992) ez bezala, arras bakanak direla Frantzia. Ezagutzen dudun salbuespen bakarra Vaulx-en-Velin-ekoa da, 1990ean, lapurturiko eta erretako zentro komertzialarekin. 2023an lapurketak egon dira, auzoetan eta auzoetatik kanpo ere. Herritarrak harriturik gelditu dira, Pariseko ala Marseillako denda handien lapurretekin. Hipotesia bikoitza dut fenomeno atipiko hori azaltzeko. Batetik, gazte matxinatu batzuen profesionalizazioa dugu –auzokoen artean *txikiak* izendaturikoak–, bereziki motibatuak eta antolatuak azaldu zaizkigunak. Baina bestetik, une batean eragileak aldatzen dira, eta bando edo talde batzuentzat ustegabeko aukerak dira matxinadak eta uneaz baliatzen dira dendak lapurtzeko. Baina, horri dagokionez ere, harrigarria al da? Mutil eta neska gazte horiek ere kontsumo-jendartearen parte dira. Etengabean goraiatzen dizkiegu alde onak, baina ondasun horiek eskuratzeko bidean hamai-ka traba dituzte normalean. Denboran lotuak dira matxinadak eta lapurretak, baina egileen, egin moldeen eta antolaketaren moduen artean haustura handiak ere badaude. Matxinadaren sekuentziazioa egin beharra dago, guztia zaku berean ez sartzeko eta arretaren norabidea modu hipokritan ez aldatzeko. Lehen egunean, enpatia zen nagusi; bigarrean, “hara

kale borroka berriz dator”; hirugarrean, lapurretak; eta laugarrenean, gurasoei zuzentzea, Dupond-Morettiren abisuari segi, beren haurrak zaintzen ez dituzten gurasoei 30.000 euroko isuna bideratuz. Soaren lekualdatze horren petzero izan behar ote gara? Ez dut uste.

Zer diozu komunikabideek egindako jarraipenaz?

Amnesia kolektiboak nau harritzen. Oso laster ahazten da dena. Irudiak, komentarioak, analisiak, inkestak, kridaren oihartzunak... guztia bada, eta hortik gutxira dena doa ahanzturara. Ondoko jazarraldira arte. Atentatu terroristei ala COVID 19-ari dagokienez, berdina gertatu da. Matxinaden historia? Ez da existitzen. Soziologo eta ikerlariek ondorio, arazo, aterabide berak errepikatu behar dituzte aldi oro. Goizegi hil zitzaigun lankide eta adiskide Didier Lapeyronniek zioen: “Sei urtero elkarrizketa berdina egiten dut”. Hala ere, “bortizkeria handia” salatzen duten komunikabide handien homogenizazioaren ondoan, *Mediapart* bezalako komunikabideak ere baditugu. Terrenotik egindako kazetaritzari esker lortu daiteke irakurketa polizialean oinarrituriko eskuin-muturraren eta muturreko eskuinaren diskurtso eroa gezurtatzea. Orohar, auzo popular horietako eragileak, eta batez ere militanteak ikusezin bihurtzen dituzte. Lehen lerroan direnei ez zaie mikrofonoa luzatzen. Alta, badituzte gauzak errateko. Baina ez dira entzuten, ez zaie hitza ematen, *ahotsik gabekoak* bihurtzen dituzte.



“ ”

*Goitik bideraturiko
arrazializazio gisa
bizi dute beren
esperientzia soziala auzo
popularrerako anitzek*

Zer parekatu daiteke 2005eko matxinadekin?

Lehenik eta behin, immigrazio post-kolonialaren ondoko pertsona baten heriotza dugu bietan, Poliziarekilako interakzio batean eta baldintza arraroetan gertaturikoa. Testuingurua ere bai. Bietan dugu Poliziaren tentsioz, kontrolez, interbentzio bortitzez eta presioz beterikoa testuingurua. Ongi ulertu behar da fama txarreko auzo horietan Polizia dela Estatuaren azken ordezkaria, baita bakarra ere, zerbitzu publikoak desagertuz joan zirelako poliki-poliki. Doi bat estrapolatuz, erran nezake jomuga sinboliko bihurtu dela Polizia, gazteen artean zentzua galdu duten bestelako jomugak ordezkatzuz –klasearen etsaia, burgesia, patronala-. Arrazoiak dituzte: ez dute lan esperientziarik edota kontratu txikiak dauzkate. Auzo popularreran etsaia Polizia da, Estatuaren ordezkaria dena, eta Poliziarentzat gazte horiek jendailak dira, kaltegarriak. Bien artean ez dago mediazorik, gerran daude. Zabalpena da hirugarren antzekotasuna. Motelagoa lehenean, biziki zalua bigarrenean, baina tokian-tokitik maila nazionalera pasa dira biak.

Zein bilakaera espero dezakegu?

Hainbat eragile politikok, sindikalistak eta ikerlarik Polizia erreformatzeko proposamenak landurik dituzte, azkenean, hori delako gaia. Baina, errealtatetik arras urrun dago Gobernuak, ez du egoera lasaitzeko urrats bakar bat ere bideratu, ez bada gehiengoan diren Polizia-sindikatuak loreak banatzea. Horregatik, nire beldurra da ondoko hilketan berriz ere piztea sua. Nagusiki arrazoi politikoen-

gatik, badirudi ezinezkoa Polizia erreformatzea. Inguruko herriein alderatuta begibistakoa da aldea. Obeditzea errefusatzegatik 20 hildako izan ditugu 2020az geroztik; Alemanian hamar urtez bakarra dute. Gurean *statu quo*-a da garaile, edo hobeki erran arazoari ez begiratzeko jarrera: arma hilgarrien edo LBD gisako hilgarritasun ahuleko armen erabilpenaren zabalkundea, kolpatuak, in-punitatearen kultura, arduren ez hartzea –eta hori sistemaren goi mailatik hasita-. Hori horrela ondoko drama arte. Ikusirik Poliziaren eta Frantziako jendartearen zati bat *lepenizatzen* ari dela [Le Penen aldeko bihurtzen], kontrolatu gabea dirudi egoerak. Ezkorra naiz geroari begira.

Alta, Poliziari buruzko eta bere arrazakeria sistemikoari buruzko txostenak publikatu ditu Eskubideen Babesleak. Lan bikaina egin da, aterabideak atzeman nahian, berez ez litzatekelako fatalitatea izan beharko. Poliziaren erreformatzeaz ezin da mintzatu eta horrek berak boterearen hauskortasuna islatzen digu. Bote-reak bere Poliziari esker zutik jarraitzen duela erratea ez da erabat absurdoa, nahiz eta, paradoxikoki, azken hori ez duen gehiago meneko. Eztabaida publikoa oso polarizatuta dago Frantzian: polizien alde direnak, diotena immigrazioa dela matxinaden benetako kausa; eta berez aurka direnak, laxoak, aukera errepublikarretik arras baztertuak direnak, nahiz eta proposamen interesgarriak ukan. Biziki zaila da polarizazio horretan kokatzea, diskurtso kritiko orok duelako diskurtso erreazionarioa elikatzen, eta alderantziz, komunikabideetako etengabeko desinformazioak erradikaltasuna elikatzen duelako. Anitz

ikasi dezakegu Frantziatik haratago jarriz soa. AEBetan egon da eztabaida: Polizia armagabetu behar ote da? Diru gutiago bideratu behar ote zaio? Gehiago kontrolatu behar dea? Armamenduaz ere gogoetatu dezakegu. Guztiek berdin armatua izan behar dute ala gazteenek, guti edo gaizki formaturikoek –eta eremu gogorrenetara bideraturikoek– gutiago? Inpedententea den egitura bat jarriko al dugu segipena egiteko? Hiltzeko baimena ematen dien 2017ko legeaz hitz egingen dugu? Arazoa da Poliziaren instituzioak ez dituela erreforma horiek nahi, daukanari lotzen zaiola fermuki, daukan sostengua ala etsaigoa maneiatur.

Gainera, exekutiboak geroz eta neurri liberal gehiago hartzen ditu. Argi gertzen ari zaigu 2016az geroztik. Botere politikoak polizien beharra du, eta Alliance bezalako sindikatuarekin kogestioan ari da, herritarren haserre legitimoaren eta demokratikoaren gainetik pasaz aitzina egiteko. Azken matxinadetan polizientzako estatutu berezia galdetu zioten sindikatuak, auzibideetarik dispentsatuak izateko gisan. Ikertzaile, biktima, lekuko eta orain epaile? Demokrazian gaude ala erregimen autoritario batean? Maiz entzuten dugu Le pen helduko zaigula ondoko presidentzialetan. Baina, jakin Polizia-sindikatuaren eta Barne ministerioaren arteko kogestioarekin aro aurre-faxista batean garela, nahiz eta horrelakorik ez duten aitortu nahi. Ukapenean izan ordez, ondoko herriei begiratzen ahalko genieke. Alemanian, adibidez, giroa baretzeko estrategian daude. Hainbat pista daude, baina Frantziako polarizazioak ez digu ahalbidetzen. ●

UMA ULAZIA ETA MAIDER BARAÑANO, EUSKAL HERRIKO NESKA* GAZTEEN SAREKO KIDEAK

“Ez da kasualitatea neska gazteok izatea haurrak zaintzea bezalako lan prekarizatuak betetzen ditugunak”

Euskal Herriko Neska* Gazteen sareak Usurbilen (Gipuzkoa) egingo du aurtengo Baterajotzea, urriaren 13tik 15era bitartean. Herrietako asanbladetan eztabaidatutako zenbait gai elkarrekin lantzeko eta erabakiak hartzeko topagunea izango dela gogorarazi digute Maider Barañano (Algorta, 1999) eta Uma Ulazia (Mutriku, 2001) talde motorreko kideek. Baina, batik bat, greba feminista orokorrera begira indarrak hartzeko baliatu nahi dituzte egun horiek.

 LEIRE ARTOLA ARIN  IBAI ARRIETA

Azken urteetan “behetik gorako” harremanak sortzen saiatu direla azaldu digute Maider Barañano eta Uma Ulaziak, Euskal Herriko Neska* Gazteen sareko (EHN*G) kideek. Alegia, herriz herri, neska gazteen taldeek euren kabuz lanketa egiteko autonomia bultzatu nahi izan dute, problematika zehatzak identifikatu eta herrien arteko aliantzak egiteko eskualde mailan. Barañano eta Ulazia parte diren talde motorrak tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkie lanketa horiek egin ahal izateko, eta unean uneko beharrak entzuten dituzte.

Bada, orain, denok elkartzeko parada izango dute urriaren 13tik 15era antolatu duten Baterajotzean, gogoetak elkartrukatuta eta EHN*G sarearen hurrengo

pausoak zehazteko: “Mugimenduaren barruan erabakitzeko espazioa da Baterajotzea, eta neska gazteei dei egiten diegu gune hori aprobetxatzera”, animatu ditu Barañanok, eta izen-ematea irekita dagoela gogorarazi du. Ulaziak azpimarratu du egun horiek izango duten garrantzia: “Inportantea izango da gazte feministontzat, bai grebaren aurretik baina baita sare moduan ere”. Feministak eta antolatuta daudenak indartzeko ezinbestekotzat jo dute topagune hori.

Izan ere, aurtengo Baterajotzearen berezitasuna da testuinguru berezi batean datorrela: azaroaren 30ean greba feminista orokorra egingo dute Euskal Herriko osoko mugimendu feministako kideek, eta hori antolatzeko beharrezkotzat dute neska gazteek elkarrekin

gogoetatzea: “Kolektibotasunak emango dizkigu tresnak errealitatea aldatzeko”, zehaztu du Barañanok.

NESKA* GAZTEAK ETA ZAINTZA

Zein toki dute neska* gazteek zaintza-sisteman? Zer aldarrikatu nahi dute greba feministan? Auzi horiek jorratzeko tarte zabala hartuko dute Usurbilgo Baterajotzean, eta mahai inguru zentralerako bat izango da *Gu ere Greba Feminista Orokorrera!* “Sistema iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatuko ditugu. Utopiak pentsatu eta haustura kolektiboak antolatuko ditugu”, azaldu zuten Baterajotzearen aurkezpenean. Ahots ugari izango ditu mahai inguruak, Ulaziak eta Barañanok aurreratu dutenez. Hasteko, zaintza-sistemaren



kokapen teorikoa landuko dute, “tresna politikoak edukitzeko eta ulertzeko greba hau zertara datorren”. Horretarako, Etxekotu gabeko emakume langileen sindikatuko eta LAB sindikatuko kideak gonbidatu dituzte, eta Bilgune Feministako nahiz EHN*G sareko kide bana ere bai. Teoriari esperientzia gehitzeko, zaintza gatazkari zein lan feminizatuari lotutako grebetan parte hartu duen kide batek ere parte hartuko du.

Mahai inguruaren bigarren zatian teoria praktikara eramango dute, eta lantaldetan banatuta landuko dute nola antolatu eta eurak non kokatu azaroaren 30eko greban. “Greba hori antolatu egin behar da, eta guk uste dugu neska gazteek herrietan badaukatela paper oso garrantzitsua, mugimendu feminista eta herri mugimendua aktibatzen. Helburua da neska gazteak txip horretan sartzea”, laburbildu du Barañanok. Bate-

rajotzetik indartuta ateratzea da asmoa, eta gaztetasunetik grebari ekarpenak egitea.

Neska* gazteengan egungo zaintza sistemak dituen eraginak sakon gogoe-tatuko dituzte Baterajotzean, eta antolatzaileek nabarmendu dute “modu berezitan” zeharkatzen dituela neska* gazteak. “Argi dago azken urteetan pribatizazio prozesu oso gogorra egon dela zaintza lanetan, eta berriro sartu dira familiaren barruan; horrek bai orain bai etorkizunean eragingo digu, eta neska* gazteak izango gara zaintza horren kargu egingo garenak, alde batetik, gizonak ez dituztelako beraien lanak egingo eta, beste alde batetik, instituzio publikoek euren ardurak hartzen ez dituztelako”, kritikatu dute Ulaziak eta Barañanok.

Hori iraultzeko neska gazteei antolatzeara dagokiela argi dute EHN*G sarean. “Neska* gazteok doakoak eta prekari-zatuak diren lan asko betetzen ditugu, emakumeak garelako. Klase partikularrak ematen ditugu, haurrak zaintzen ditugu, udalekueetan gaude, eta ez da kasualitatea geu izatea lan horiek betetzen ari garenak”. Horren aurrean, sistema kapitalista zisheteropatriarkala iraultzeko proposamenak irudikatu eta artikulatzera, hausturak kolektiboki antolatzera eta “utopiak lehertzera” datozela aldarrikatu dute, eta horixe irudikatu dute Aka Boni eta Julu musikariek *perreatzeko* erritmora egindako Baterajotzeko kantan: “Egia esan bidea ez da erraza izan / emakume migrante eta arrazializatua. / Non da aukera berrien Estatua? / Esplotatu zaintza lana aitor-tzen ez duena”.

ASTERISKOA, LODIFOBIA ETA DEKOLONIALITATEA

2021eko Baterajotzean azaleratu zen subjektuaren gaiari zentralitate handiagoa eman nahi izan diote 2023koan, eta hiru mahai inguru zentraletako bat izango da *Asteriskoa: subjektuaren inguruko eztabaida*. Ulazia eta Barañanok baieztatu dutenez, saiatu dira ikusten zein gai izan daitezkeen eztabaidagai eta horiek ekarri dituzte hitzaldi eta tailetarretara. Laura Galar eta Itziar Reguerok lodifobiari buruzko hitzaldia “estrategia lodiak artikulatzeko” baliatuko dute, eta gorputz lodiak subjektu politikotzat hartzea aldarrikatu.

Begirada feminista dekolonialak mahai gaineratuko ditu Pastora Filigra-



nak, eta komunikazio feministari buruz jardungo da Estitxu Garai: “Asko dira iritzi-foro edo tertulia ezberdinetan hasi eta gutxi irauten duten emakumeak. Gizonak hor daude, emakumeak bertatik igarotzen dira”, azpimarratu du hizlariak.

Etxebizitzaren problematikari helduko diote Maider Arregi eta Nerea Valdes Infernua Biziriketako kideek, eta okupazioaren aldeko borrokari buruz hitz egingo dute. Lurrak ere tartea izango du, Mirene Begiristainen eskutik: “Agroekologiatik eta feminismotik ikasi dugu militantzia ereduak errebisatuz eta egunerokoan elikadura erdigunera ekarri egin daitekeela jautzia; ez ordezkatzeko logika batetik, eraldaketatik baizik”, aurreratu du. Ulazia eta Barañanoren esanetan, gai horiekin gogorarazi nahi izan dute mugimendu feministatik haratago, beste mugimenduetan ere feminista asko daudela antolatuta, kritikak egiten mugimendu feministari, “horiek kontuan hartu behar ditugu eta horietatik ikasi”.

NOR JARRI ESZENATOKI GAINEAN

Sormenean eta oholztan emakumeek duten tokiari buruz ere gogoetatuko

“Helburua da
Baterajotzetik indartuta
ateratzea greba
feminista antolatzeko,
neska* gazteek paper
inportantea baitute
herrietako taldeak
aktibatzen”

dute, eta, besteak beste, soinu teknikari tailerra eta *Mundu berriak sortzeko, artista feministak oholtzara* hitzaldia antolatu dute. Nor eraman oholztza gainera eta nor ez, hori ere hautu politikoa baita. “Uste dugu sortzen diren aisialdi espazioak ere badirela eraldaketarako

espazioak. Nor jartzen dugun eszenatokiaren gainean, zergatik, zer jarrerarekin, zer musika egiten... eragiten du sortzen den giroan”, nabarmendu dute horri ere erreparatzen diotela egitaraua osatzerakoan. Aurten, Olatz Salvador eta Zitzada taldeak egongo dira oholztan, besteren artean.

2021eko Baterajotzera “oso ahul” ailegatu zirela oroitu dute Barañanok eta Ulaziak, COVID-19aren krisiaren eraginez oro har herri mugimendua “oso zatituta” zegoelako. Orduko hura baliatu zuten neska* gazteak berriro aktibatzen eta mugimendua saretu eta indarberritzeko. “Aurten heltzen gara Baterajotzera guztiz gaintik kendu gabe COVIDak mahai gainean jarri zuen hori guztia, eta horren adibide da mugimendu feministak deitu izana greba orokorra. Lanketa batzuk luzeagoak dira, eta nahiz eta agian guk COVID gaia ahaztu dugun, problematika zehatz batzuek hor jarraitzen dute”.

Halaber, azken bi urteetan militante berri asko batu dira EHN*G sarera, eta antolatzaileek dei egin die horiei guztiei Usurbilera joatera, haien aho-tsak eta ikuspuntuak biltzeko gunea ere izango baita. ●

FEDERICO KRUTWIG (1921-1998)

Krutwig, ezagutu beharreko igarlea

Duela bi urte ospatu genuen Federico Krutwig Sagredoren mendeurrena. 1921ean jaio zen Getxon eta 1998an zendu. Tarte horretan ekarpen asko eta hausnarketa ugari utzi zizkigun. Gizon jakintsua zen, eta ezagutzaren arlo ugari aztertu zituen, hala nola politika, ekonomia, filosofia, hizkuntzalaritza, literatura eta euskara. Intelektual oparoa izan zela ez dago zalantzarik, nahiz eta onespén gutxi eman ziztaion bizi zen artean, eta horrela jarraitzen du oraindik ere. Bere luma oparoa eta zorrotza izateaz gain, ekarpen andana egin zion gure herriaren askatasunaren aldeko borrokari.

 **BALEREN BAKAIKOA (KRUTWIGEN LAGUNAK EKIMENA)**



Federico Krutwig, 1984an, ARGIAri eskainitako elkarrizketan. 1921ean jaio eta 1998an hil zen, 77 urterekin. Pasa den urtean Krutwig. Bere mendeurrena berrirakurtzen liburua plazaratu zuen Nabarralde, Krutwigen Lagunak elkarteko kideek idatzia, eta lan horretako mamiari heldu diogu artikuluari.



Krutwig, ezkerretik lehenengoa, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean (Bergaran, 1978an). Hainbat euskaltzain ditu alboan: Luis Villasante, Piarres Lafitte, Jose Maria Satrustegi eta Koldo Mitxelena.

Erromako exilioan bera ezagutzeko parada izan genuen 1970ean eta aukera paregabea berarekin intelektualki aberasteko eta azterketa sozioekonomikoari beste modu batera heltzeko. Gerora ere, berarekin Bruse lan eta Euskal Herrian egoteko zortea izan genuen. Beti zuen Euskal Herria buruan. Harreman pertsonaletarako batzuetan zakar samarra izanik ere, ezker-tiar jende andana hurbiltzen zitzaion: politikariak, gerrillari ohiak, kazetariak, intelektualak eta abar.

Bizkaiko eliteko familiako kide gisa, Deustuko Unibertsitatean ekonomia eta zuzenbidea ikasi zituen. Atzerrira joan zenean, Parisen, Sorbona Unibertsitatean, zuzenbideko ikasketekin jarraitu zuen eta gero, Bonnekoan (Alemania), ekonomia sakondu zuen. Gaztetatik prestakuntza intelektual aberatsa zeukan, baita hizkuntzak ikasteko erraztasuna ere.

EUSKARAREN SUSTATZAILE

Federico euskaldun berria zen. 21 urterekin, Azkueren eskutik, euskaltzain urgazle bilakatu zen, eta 26rekin euskaltzain oso izendatu zuten. Euskaltzaindian ere ez zen ezkutuan ibili. Hasteke, bilerak euskaraz egitea lortu zuen. Euskara batuaren alde egin zuen; bere ustez, euskara batuaren oinarriak lapurtera klasikoan zeuden historikoki

finkatuta. Berarentzat, bazegoen tradizioko euskara kultua, hain zuzen, jadanik Leizarragak eta Axularrek idatzi zuten euskara, oinarritzko euskara batua, eta hori indartu eta garatu behar zen, eta ez gaur egungo euskara batua.

Aranismoak erabiltzen zuen euskara garbiaren aurka zegoen, eta zioenez grekera klasikotik zetozen termino kulturalak maileguan hartu behar zituen euskarak, hizkuntza aurreratu eta aberatsa izan nahi bazuen. Berak euskara hori erabiltzen zuen, bai berba egiterakoan zein idazterakoan: lapurtera klasikoa.

Eliza Katolikoa Euskal Herriaren etsaitzat zeukan, betidanik euskararen aurka egon zelako. Aurkakotasun hori nabarmentzen zuen Pio XII. arekin. Aita Santu horrek Francorekiko eta naziekiko azaldu zuen jarrera harroa ez zuen batere gustukoa. Aita Villasante euskaltzain oso izendatzerakoan, Euskaltzaindiak harrera hitzaldia eskaintzeko eskatu zion Krutwigi. Bada, Eliza Katolikoa goitik behera eta gordinki kritikatu zuen euskara baztertzeko zeraman politika koloniala zela-eta, Francoren garaian bereziki. Hitzaldi horrek anabasa sortu zuen eta polizia frankistak atxilotu aurretik ihes egin zuen Iparraldera, non Likiniano, Kasilda eta beste hainbat euskal iheslarirekin elkartuko zen. Bera presente egon gabe egindako epaiketan 25 urteko espetxe zigorra ipini zioten.

Erbesteko lehen urteetan euskal enpresari biltzarra eratu nahi izan zuen Miarritzen, pentsatzen zuelako enpresariak euskarari bulkada eman-go ziotela. Horretarako, Londresetik laguntza paregabea eman zion Manuel Irujok, begi onez ikusi baitzuen gerra osteko garaian euskal enpresari lobby antzeko bat sortzea euskal ekonomiari indar berritzailea eranste aldera. Gestio hauek 1960ko hamarkada hasieran egin zituen, baina proiektuak ez zuen aurrera egin.

Aipatu bezala, hizkuntzak ikasteko erraztasuna zuen eta berak zioenez hamabost hizkuntza menperatzen zituen. Persiar zaharra ere ezagutzen zuen, baina gerora ahaztu egin zitzaion, inor ez zuelako aurkitzen praktikatzeko. Horregatik, garaiko prentsa agentzietan oso erraz aurkitzen zuen itzultzaile lana. Mao Zedongen aipuak ere itzuli zituen.

ABERTZALETASUNA BERRITZEKO ETA INDARTZEKO PREMIA

Krutwigek euskal abertzaletasuna berritze aldera lan eskerga burutu zuen eta bere ekarpen nagusiak hiru liburutan jasoko genituzke, nahiz bere obra politikoa arras oparoagoa izan: *Vasconia* (1963), *La Cuestión Vasca* (1965) eta *Computer Shock. Vasconia. 2001* (1984). Eginkizun honetan aipatzekoa da Pako Miangolarraren laguntza oparoa, bai ideiak proposatzen, baita proiektuak finantzatzen ere.

Vasconia-n aurkituko dugu Euskal Herri Handiaren definizioa, zeina gaur egungo Akitania Berriaren zati handi batek, Nafarroak eta EAEk osatzen duten euro-erregiora hurbiltzen den. Halaber, euskal nazioaren oinarri nagusia ez da arraza, aranismoak zioen bezala, hizkuntza baizik, eta bigarren maila batean kultura eta mentalitatea, erlijioa, arraza eta ezaugarri ekonomiko-sozialak. Nazio gintza prozesu dialektikoa da, kontraesanek beteak, eta ikertzeko metodo gisa materialismo historikoa erabiliko du, marxismoari helduta. Jabetza pribatuaren aurka azalduko da, esplotazioa ekidin nahi bada; eta oraindik bizirik zegoen euskal jabetza komunala defendatuko du.

Euskal Herri Handiaren azpiegiturak eta ekonomia antolatzeko ildoak eman-go dizkigu, non nekazaritza aurreratu, industria moderno, komunikazio lehiakor, zerbitzu eraginkor eta unibertsitate egokiak eratu behar baitira. Ideia ugari

bat datoz gaur egungo euro-eskualdearen ezaugarriekin. Beraz, hein batean, Krutwig euskal igarlea ere izan genuen.

Bestalde, euskal administrazio politikoak nola eratuta egon behar zuen marraztu zigun. Horretarako, oinarri-oinarrian, behetik gorako biltzarrak ipiniko ditu, erakundetze demokratikoa erdietsi nahi badugu. Diseinu horretan Kropotkin anarkistaren eragina nabarrena da.

1960ko hamarkada hasieran Euskal Herriaren azterketa soziopolitikoa marxismoaz blaitzen hasita zegoen eta *La Cuestión Vasca* iturriko ur freskoa bezala etorri zitzaigun frogatzeko marxismoak (Lenin) ere bidea ematen zigula autodeterminatzeko eskubidea onesteko eta justifikatzeko, gure independentziarako bidean. Hamarkada horren amaiera aldera eta Franco hil aurretik, ezkerreko abertzaleok oinarritzko liburu gisa erabili genuen.

Independentziarako prozesu politikoak baketsua izan behar du, alabaina diktadurak edo demokrazia ezak galarratzen badio Euskal Herriari independentea izatea, zapaltzaileen estatuaren aurka borroka armatura jauzi egitea zilegia litzatekeela aitortuko digu. ETA-ren V. Biltzarrean parte hartuko du eta onartuko dira bere hainbat teoria, hala nola erakunde horren antolakuntza lau frontetan banatzea: politikoa, sozioekonomikoa, militarra eta kulturala, azken hau Krutwigen aburuz lauetan garrantzitsuena. V. Asanbladan Biltzar Ttipiko kide izendatu zuten eta denboraldi batean Hego Euskal Herrian ibili zen, klandestinitatean, ETAko militante gisa.

IRAULTZA BERRIAREN AROA

Erbestetik itzulita *Computer Shock* idatziko du non, igarle moduan, konputagailuen iraultzak dakarrena aurreikusiko baitu eta erakutsiko digu Euskal Herriak zer egin behar duen aurrerapenaren gurpila ez galtzeko. Etorkizunean makinek pertsonen adimena eskuratu eta makina batzuek, robotek, proletarioak ordezkatzeko dituzte. Ondorioz,

Marxek aurreikusten zuen langileriaren iraultzak zentzurik ez du izango, iraultza burutzeko proletariotzak gaitasunik ez baitu, bai ordea jakintza gorenaren eliteak. Horretarako euskal elite sortzailea eratu eta elikatu behar da: Sophopolisen, jakitunen hirian, euskal elitearen bilgunean, non asmakizun gorenak emango diren Euskal Herriak herrialde aurreratuenen artean iraun dezan.

Hasiera batean Sophopolisa -25.000 bat laguneko hiri- Gernika inguruan kokatu nahi zuen. Hiri hori sortzeko hainbat arkitekto eta ingeniari hurbildu zituen, baina alferrik. Orduan, Greziako gobernuak erakarri zuen proiektu hori gauzatze aldera eta, azkenean, Kea deritzon irla esleitu zion, non amestutako Sopholisak argia ezagutuko baitzuen. Proiektua aurrera eramateko finantzazioaren zain zegoela hil zen Krutwig, eta gutzia horretan geratu zen.

Liburuan Krutwig Marxengandik erabat urruntzen da; esango digu materialismo historikoa, Marxek gizakien historia aztertzeke aplikatu zuen metodoa, ez zela zientifikoa eta fisika newtondarra duela oinarri, fisika berriak baztertuko duena. Halaber, historiako iraultza oro garaiko eliteen esku gautatu direla idatziko du eta, beraz, langileriak inoiz ez omen du sistema kapitalista sozialismora eramango; gainera, langileria robotek ordezkatzeko dute ekoizpen prozesuan eta horrek ahulezia besterik ez dio ekarriko langile klaseari.

Krutwigentzat, datorkigun iraultza zibernetikan oinarrituko da, informazioa baita ekoizpen prozesuetako lehengai boteretsuena, desagertzear dauden petrolio eta gasa baino gehiago. Hortik euskaldunok prestatuta egon beharra, munduaren gurdia galdu nahi ez badugu eta norabide egokian bidaiatu.

Bestalde, euskal eliteak ez du soilik bere mesedetan pentsatuko, baizik eta haren zereginak izan behar du ekoizpenarako asmakizunak gauzatzea, euskal jendarteak hobekiago bizitzeko, eta ez gutxiengo bat bakarrik profitatzeko.

Krutwigentzat,
datorkigun iraultza
zibernetikan
oinarrituko da,
informazioa
baita ekoizpen
prozesuetako
lehengai
boteretsuena,
petrolio eta gasa
baino gehiago

Halaber, Euskal Herriak baldintza paregabeak ditu garapen ekonomiko orekatua zehazteko. Ekonomiaren erdigunean Bilbo kokatzen zuen bere itsas portuarekin; ez da ahaztu behar *Computer Shock* idatzi zuenean Bilbo finantza hiri garrantzitsua zela, gerora, ohartu gabe gainera, desagertu zaiguna. Horrez gain, Eibarko industria berritzailea aipatzen zuen, baita Bergara bezalako asmakizunen herria ere, edo Arrasate, non enpresak eratzeko eskarmentu aberatsa baitago, edo Oñati, non pentsatzeko ahalmena garatu daitekeen. Haatik, Krutwigen arabera, Euskal Herriak baditu oinarri sendoak ekonomian aurrera egiteko, beti ere, zibernetikaren eta ikasketen klasikoaren uhina galtzen ez badugu.

Ezagutu behar den euskal igarlea da Krutwig. ●



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

EUSKARAZ ZARA euskaraz gara!

SINTROPIA EZAGUTU NUEN EGUNA



IÑIGO ARRUABARRENA

Gogoratzen dut nola goiz hartan ez nintzen konbentzimentu handiz jaiki. Gogotsu bai, edozer gauza ikasteak nire barne ingeniartzat itzartzen duelako, baina esperantzaz gutxiz kontzeptu hark nire ikuspegia zer edo zertan aldatuko zuen: nekazaritza sintropikoa.

Ikastaroa egin eta hurrengo egunera kontua guztiz aldatu zen. Aurreko eguneko kontzeptuak behin eta berriz berrikusiz, konturatu nintzen sintropiaren indarrak, nire buru gogorra hautsiz.

Nekazaritza sintropikoa Ernest Gostchek garatu izan du bere bizitza guztian, Bahian, Brasilen. Naturaren maitale sutsu, Gostchek sakonetik ulertu du ekosistemen funtzionamendua eta haiekin lan egiteko gaitasuna garatu, osotasunaren onura bilatuz. Gaur egun ere horretan dihardu fruitu ugari era oso oparoan ekoiztuz, kakaoa eta kafea adibidez.

Sintropia ekosistemak sortzean datza, gizakia kudeatzaile huts bihurtuz, ikusle, bidelagun. Ekosistema horren parte bihurtzean bertako oparotasunaren onura jasotzen dugu, gu ere oparo bihurtuz. Sintropiak ez du ez ximaurrik ez agrotokorik erabiltzen, oreka bilatzen du (baita aurkitu ere) bertako baliabideak erabilia. Kontzeptu horrek naturari berari uzten dio adierazten, eta gu inguruarenean parte berdinzale bihurtzera gonbidatzen gaitu.

Ikastaro egun hartan (Ametxen, Gordexolan), azalpen teoriko labur baten ondoren, 14 x 0,8 metroko bankal bakar bat erein eta landatzen hasi ginen, eta nire buru gogorrak berriro eztanda egin zuen. Hain espazio txiki horretan milaka hazi erein genituen, hamarnaka zuhaitz landatu eta 100 adaxkatik gora lurrean txertatu. Dentsitatea izugarri handia zen



Ernest Gostch nekazaritza sintropikoaz ikastaroa ematen.

eta hura ikusteak benetan urduritu ninduen. Nola demontre garatuko dira osasuntsu landareak bertan? Eta kompetentzia? Landaketa markoa?...

Egun bat eta youtube saio luze bat pasatu behar izan nituen teknika horren balioaz jabetzeko. Azkenean ulertu nuen, dentsitate izugarri horrekin naturari aukerak ematen dizkiozula, adierazteko aukerak, nekazariaren kontrol beharra uxatuz. Baliabide horien kudaketa da gako, estratu ezberdinekin jolastea, garai ezberdinetan kimaketa handiak behin eta berriz burutzea.

Ekosistema sintropiko bat instalatzean kontutan izan behar duzun gauza garrantzitsuena da bilatzen duzun klimax baso ideala deiseinatzea: ze espezie nahi dituzun bertan luzaroan geratzea eta ze fruitu nahi izango dituzun batu etorkizuneari. Hori kontuan hartuta, espezie ezberdinak gora etorri ahala, adarrak kimatzen eta kontrolatzen goaz, eta kimatze horren ondorioz bakterio eta hormona bonba inguruan askatzen da, mikrobiologia sustatuz. Hor dago kokxa, sistemaren

dinamismoa bizkortzea, ekosistema guztia helburura gidatuz.

Kimatzea denbora eta espazio tarte ezberdinetan burutzen da (1,3,6,12... hilabete) eta horren arabera erein edo landaketa egiten da. Edozein landare edo zuhaitz erabil genezake, inguruan dituzun edo bikoizten errazak egiten zaizkizun horiek adibidez. Gordexolako egun hartan bankalaren erdian bilatzen genuen klimax basoa (melokotoi eta ahua-kateondoak) landatu genuen, sostengu espezieez inguratuta (eukalipto, sahas, lizar...). Erdigunetik kanporantza mugituz porte txikiagoko zuhaixka eta landareak erabili genituen (izpilikua, erromeroa, agapantus, eskuzuria, zerba, orburua...), bankalean denbora gutxiago emango dutelako. Azkenik, bankalaren ertz-ertzean, ziklo oso motzeko landareak erein genituen (errefautxo, mostaza, ilar, letxuga...).

Aurrekoa irakurrita burua lehertzen zait gaur egun ere, ikasitako guztiaren kontra doalako. Baina horretan datza nekazaritza sintropikoa, markoak apurtzean. ●

ZAINITZA ERDIGUNEAN



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Tamaina txikikoa, gris-marroi kolorekoa eta gau zalea. Halakoa da txantxiku arrunta. Ezaugarri horiekin ez du ematen atentzioa deitzen moduko animalia denik, baina... ondo erreparatuta, txantxikuak baditu hainbat sekretu gizakiaren begietara ezkututzen direnak. Izan ere, txantxiku arrunta, Europako aporik zaharrena izateaz gain, apo berezia ere bada: zaintza erdigunean jartzen du.

Ikusi, ikusi... agian ez zenuen ikusiko, baina entzun... oso litekeena da txantxiku arrunta entzun izana. Izan ere, baserri inguruetan, aska edo ur-putzu txiki-ren bat den gunean, txantxikua nahiko arrunta izaten da Euskal Herrian. Eta ugaltze garaia iristen denean, udaberri inguruan, edo batzuetan baita udazkenean ere, txantxikua kantuan hasten da, bere txistu soinu berezi eta errepikakorrekin. Ezagutzen ez duenak ez dio kasurik egingo, bere belarrira txoriren bat izan daitekeela-ko. Behin belarrira eginda, alabaina, nahasezina da bere musika. Kun-kun egiten omen du. Horregatik, agian, Agurainen jarri dioten izena: *kunkuna*. Leku guztietan, ordea, kantua ezberdin aditzen omen da eta, amurriotarrek *klinklona* deitzen diote. Klin-klon egingo duelako. Hernani inguruan, kuk-kuk egiten duela, baina... *zapottikia* bezala ezagutzen dute. Tamainari erreparatu diote kasu horretan.

Txikia izanagatik, ordea, ikusi izan duenak ez du berehalakoan ahaztuko. Urre-zilar koloreko begi ederrak, eta pinto gorri txikiak bizkarraren bi aldeetara. Hori gutxi ez-eta, txantxiku arruntak, inguruko beste anfibio espezieek ez bezala, etorkizuneko zapaburuak izango diren arrautzak ipurdi-bizkar ganean eramaten ditu korapilatuta ugaltze ga-



raian. Eta hala, gauero-gauero, uretara eramaten ditu eta bertan busti, heze mantentzeko. Arrautzak gau eta egun eramango ditu bizkar ganean, eta arduratuko da horiek leku hezean mantentzeaz, harri edo enbor azpitan, eguzkitik salbu. Zapaburuak ateratzeko zorian direla sumatzen duenean, putzu, aska edo ur geldoko eremuan utziko ditu.

Baina agian espero ez duzun beste ezaugarri batek emango dizu arreta. Izan ere, txantxikuaren kasuan, emeak ez, arrak dira etorkizuneko zapaburuak aterako diren arrautzak bizkar ganean eraman eta zainduko dituztenak. Txantxikuak urteak daramatza zaintza erdigunean jartzen.

Gurean arrunta izanagatik, ez dugu erlaxatzeko arrazoirik espezie honen

TXANTXIKU ARRUNTA

ALYTES OBSTETRICANS

TALDEA: Ornoduna / Anfibioa.

NEURRIA: 5 cm inguru.

NON BIZI DA? Basoa, hezegunea, belardia eta eremu urbanoa.

ZER JATEN DU? Ornogabe txikiak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua.

kontserbazioan. 1998ko udan, Guadarramako mendilerroan, Peñalarako Parke Naturalean (Madril), metamorfosia egin berri zuten ehunka txantxiku hilik agertu ziren bi mila metro ingurura dauden hainbat urmaeletan. Itxuraz, kontserbazio egoera ezin hobean ziren putzuetan. Urte betera, 1999ko udan, txantxiku populazio hartako zapaburuaren %86a desagertua zen jada. Kitridioen taldeko onddo batek egin zuen sarraskia eta jada gaixotasuna Euskal Herrira ere iritsi da, nahiz eta hiru lekutan baino ez den atzeman.

Gizakiak ere zaintza erdigunean jarri beharko du, bere buruarena eta inguruko gizakiena ez ezik, baita gainontzeko bizidunena ere, gure bizitzaren oinarria den biodibertsitatea mantendu nahi badu. ●

ESTRESARI LEIHOA, HOSTO-LEIHOA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Leihoak dituela esan ohi da. Hostoak zulatuak ditu eta zulo horiei leiho esaten zaie. “Fenestratua” esaten zaio, latineko *fenestra* (“leiho”) hitzetik. Ingelesek “hosto zulatua” (*perforate leaf*) esaten diote, katalanek *fulla fenestrada*. Euskarazko hiztegietan ez dut honi buruzko ez aipamenik ez argibiderik topatu, eta lakarikada atrebentzirekin neronek proposatu behar dut izena: hosto-leihoa edo hosto leihoduna. Ez didazue ukatuko hostoak zuloa duela esan baino hostoak leiho bat eskaintzen digula esatea ez dela ederragoa, askoz!

Hosto leihodunak dituen landare bat baino gehiago bada; gutxi oso, bakan batzuk besterik ez. Ezagunena oso ezaguna da, euskaraz bi izen baditu: Adanen saihetsa edo zeriman (*Monstera deliciosa*).

Igokari indartsua da, beste landareen enbor eta adarretan kiribilduz luzatu eta izugarri heda daiteke. Baso tropikaletatik dator eta zuhaitz erraldoien azpian bizi da. Ttikia denean osoko hostoak ditu, bihotz formakoak; luzatu ahala hostoak ebaki handiekin arrailatuak ematen ditu, hortik Adanen saihetsa izena; eta landare handia denean hosto erraldoiak, metro bete diametrokoak arrail oso sakonekin eta hosto-leihoak dituztenak. Hostoen aldaketa horri heteroblastia esaten zaio. Hosto-leiho horiek zulo garbiak dira, handixeagoak edo txixixeagoak, eta landareetan hain urria den ezaugarri horren arrazoia bila makina bat botanikari aritu izan da.

Batzuek zioten haizeteetatik babesteko zirela, pankartei egiten zaizkien zuloen antzera. Beste batzuek, tenperatura



DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

Zergatik dituzte hostoetan zulo edo leiho modukoak zeriman landareek?

erregulatzeko balio dutela, hostoaren alde bat eta bestea komunikatuz. Besteren batek zioen zulo horietatik barrena ura errazago irits daitekeela zuzenean landarearen sustraijera, hostoak osoak balira irrist egin eta urrunduko litzatekeelakoan. Bada areago doanik ere, hostoaren kamuflaje taktika bat dela dioenik, bere imagina desegiteko eta animalia belarjale handientzako hain nabarmena ez izateko.

Bada, Indianako Unibertsitateko Christopher Muirek besterik dio. *The American Naturalist* aldizkarian argitaratu zuen artikuluan, Adanen saihetsaren hosto-leihoen arrazoa argitzeko egin zuen ikerketaren emaitza azaldu zuen: hosto-leihoak edo hosto-fenestrazioak landarea bizi den zuhaizpeko eremu itzaltsuaren faktore erabakigarriena-rikiko eboluzio-egokitzapen bat direla

iradokitzen du, argi urritasuna alegia. Honela dio: “Baso barruko itzaletan, landareak, fotosintesia egiteko, ezusteko argi distiraren menpe daude, ‘eguzki-izpi apurrak’ izenekoak. Adibidez, haizebolada batek edo animalia batek baso barruko zeruan edo kanopian adarren bat hautsi edo zuhaitzen bat bota eta landare-estalkian behin-behineko irekidura sortu eta argia sar daiteke”. Muirek, eredu matematikoak erabiliz, neurtu zuen leiho horien bidez zelula kopuru berekin hosto zabalagoak zituela landareak, eta argi gehixeago hartu eta leihoetik igarotzen zen argia azpiko hostoak baliatzen zuela. Horrela argi-hornidura erregularragoa lortzen du, bizirauteko aukera hobetuz eta estresa murriztuz.

Estresak jota zabiltzala? Zure bizitzaren hormetan leiho gutxitxo ez dituzu ba izango? ●

EREINEZ HAZI

“ETXEKO LURSAILARI BIZIA EMATEKO SORTU GENUEN BARATZE PEDAGOGIKO KOLABORATIBOA”



GARAZI ZABALETA

Donibane Lohitzune eta Bidarte artean hazitako hiru anai-arreben proiektua da Ereinez Hazi. Berenice, Tristan eta Virgile Bruniau gazteek utzia zegoen etxeko lursailari bizitza emateko asmoz abiatu zuten egitasmoa. “Duela hiru urte jarri genuen martxan proiektua. Orduan, ez zegoen ezer lursailean, eta pixkanaka prestatzen ari gara, pedagogiarako gunea sortzeko asmoz”, azaldu du Berenice Bruniauk. Baratzeak topatzea hain erraza ez den inguru paregabean dago kokatua proiektua, hain zuzen, Erromardi eta Lafitenea hondartzen artean, Lapurdiko kostaldean.

BARATZE KOLABORATIBOA

Etxeko baratzetik harago, hiruetako inork ez zuen harreman handiegirik nekazaritzarekin proiektua abiatu aurretik. Ikasketei lotuta, baina, Paristik hurbil lurrraren espekulazioaren aurka borrokan ari ziren nekazarien mugimendua ezagutu zuen Bruniauk, eta gaiarekiko interesa piztu zitzaion. “Zuzenbide ikasketak egin ditut nik, baina ikasketa bukaerako lanean lurra lantzeko eta elikadurarako eskubidea landu nituen”, azaldu du. Lana amaitzearekin batera, diru laguntza batekin egin zuen topo Bruniauk, ingurumenarekin lotutako ekimenak bultzatzen dituzten elkarteei zuzendutakoa. Horrela bururatu zitzaion ordu arte utzia zuten etxeko lursailean baratze proiektu martxan jartzea.

2.200 metro koadro inguruko lursaila modu kolektiboan lantzen dute proiektuko kideek gaur egun. “Guztira 60 bat lagunek hartzen dute parte ba-



ratze kolaboratiboan, baina asko aldatzen da asteburuaren arabera. Lan saio batzuetan 30 lagun elkartzen gara, eta beste batzuetan, bost”, dio. Fruta arbolak ere badituzte lursailean: sagarrondoak, gereziondoak, udareondoak, mertxikondoak eta beste. “Ekoizten duguna ez dugu saltzen, hona lanera datorren jendeak etxera daramatza barazkiak, guztia partekatzen dugu”.

PERMAKULTURAN HEZTEN

Permakulturaren printzipioen arabera egiten dute lan Ereinez Hazi proiektuan. Lursaila maldan dago, eta guztia eskuz egiten dute, mekanizaziorik gabe: “Pedagogia lana egitea da proiektuaren

helburuetako bat”. Baratzea lantzerantz hurbiltzen diren kideekin ez ezik, haur eta gaztetxoekin ere lanketa egitea da haien asmoa: “Ikastetxeetako haurrekin saioak egin izan ditugu. Proiektua aurkeztera joan izan naiz ni haiengana, eta gero, haiek datoz lursailera”. Jolasen bidez lurrraren eta nekazaritzaren inguruan ikasten dute haurrek, eta landaketak ere egiten dituzte haiekin.

Publiko zabalarentzat bestelako tailerrak ere eskaini izan dituzte gunean: sukaldaritzari, haziei, sendabelarrei eta lurrraren ongarriari buruzkoak, besteak beste. “Bizia duen gunea bat egitea da asmoa, partekatzeko eta trukerako espazio bizi bat”. ●

SARE SOZIALAK



sare sozial pribatiboen
publizitaterik gabeko gunea

Ez ditzagun hauspotu arnasa hartzen uzten ez digutenak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Multinazionalen menpeko sare sozialen erreferentziak kendu ditugu ARGIAtik. Hori izan da ARGIAk irailaren 16an, Software askearen nazioarteko egunarekin bat, egin duen adierazpena. Twitter, Youtube, Facebook, Instagram, Tik Tok, Spotify... momentuz erabiltzen jarraituko dira, baina ARGIAren euskarri guztietatik multinazionalen menpeko sare sozialen erreferentzia oro kentzea erabaki da.

Erabiltzaileok oparitzen dizkiegun informazio, albiste, bideo, argazki, abesti, bizitza pertsonaleko datuez elikatu eta aberasten diren sareok ez dira neutroak, gure datu pribatuen merkantilizazioa dute oinarri, eta haien algoritmo pribatu eta opakuek erabakitzen dute pantailan zer agertzen zaigun. Erabiltzaileak plataforman ahalik eta denbora gehien pasatzea dute helburu, ahalik eta publizitate gehien kontsumituz enpresak ahalik eta informazio gehien eskuratu dezan.

Horrexegatik dira doakoak plataforma horiek, gu geu garelako salgaia.

Errazetik ezer gutxi du korrante horretatik ateratzeak, ordea. Jakina da gaur egun pertsona askok sare horien bidez bakarrik erabiltzen duela internet. Are gehiago, politikari eta kazetari gehienentzat, sare sozial handi horietan jarraitzaile asko izatea bere lana legitimatzeko irizpide bihurtu da. Eta kontraesana ezin saihestu: gizartea eraldatu nahi duen hedabide batek jendea dagoen lekuetan eragin behar duenez, eta jende mordoak sare sozial komertzialetan aritzen dela jakinda, zer egin?

HURRENGO PAUSOA

Sare sozial horiek erabiltzen jarraituko du ARGIAk, berak kontrolatutako komunikazio-bideetara bideratzeko (Argia.eus, email buletinak, Telegram kanalak...). Baina horrek ez du esan nahi multinazionalen menpeko sare sozial horiek sustatu behar dituenik, ARGIA

Ongi etorri komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Aurten zuen artikulua erabiliko ditut nire ikasleekin ulermena lantzeko, eta eskertzen da dohainik ikusi ahal izatea, baina nire parte txikia ere eman nahi izan dut hori eskertzeko”.

Zornotzatik Josunek

“Nafarroaren alde jarraitzeagatik”.

Iruñetik Mikelek


“Kazetaritza kritiko, euskaldun eta feminista behar dugulako”.

Durangotik Iratik

Jendea sare pribatu horietara bideratu behar duenik. Beraz, zergatik agertu behar dira gure webguneetan Youtube edo Instagramen logoak? Zergatik kazetariaren sinaduraren azpian Twitterreko erabiltzaile jarri?

Multinazional teknologiko horiek egun daukaten botere izugarria lortu dute, hein handi batean, leku orotan presentzia dutelako, euren logo, widget, eta abarrekin. Beraz, ez diegu doako publizitatea egin nahi burujabetzaren (teknologikoa barne) aurka egunero lan egiten duten horiei.

Eskerrik asko martxoan euskal fedibertsoko topaketetan Kataluniako Fedicat eta LaLoka kolektiboko Rita Barrachinari eta Marcel Costari, gure proiektuen barruan “sare publizitario asozialei ikusgarritasuna kentzeko” eman zituzten pista interesgarriengatik eta Resistance al 'Agression Publicitarie talde frantziarrak 2016an hartutako erabakiaren erreferentzia emateagatik. ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Emakume ehiztariak ez ziren salbuespena

Andeetako goi-ordokia, duela 9.000 urte. Emakume gazte bat ehizarako arma eta tresnekin ehortzi zuten, eta, ondorioz, hil artean ehiztari lanetan jardun zuela ondorioztatu dute adituek. Azken urteotan antzeko hainbat kasu agertu dira, baina salbuespen modura eman izan dute horien berri. Seattle Pacific unibertsitateko Cara Wall-Scheffler biologoa buru duen lantaldeak, ordea, emakume ehiztariei buruzko ikerlan orokorra egin berri du eta *Plos One* aldizkarian argitaratutako ondorioa garbia da: Historiaurreko gizarte ehiztari-biltzaileetan emakumeek nahiz gizonezkoek egiten zuten ehizan.

Horretarako mundu osoko 63 komunitate aztertu dituzte eta horietatik 50etan aurkitu dituzte ehiza denen lana zela dioten frogak: Punan (Malaysia), Wopkaimin (Ginea Berria), Hiwi (Venezuela), Matses (Amazonia), Tsimane (Bolivia)... Beraz, gizarte ehiztari-biltzaileen %80tan gutxienez emakume ehiztariak zeudela ondorioztatu dute; eta gainerako %20etan ez dute ez aldeko ez kontrako frogarik aurkitu.

Horretarako ez dituzte aztarnategi edo arrasto berriak ikertu; aurrez egingdako ikerlanetan oinarritu dira, baina interpretazioa da aldatu dena. Luzaroen Historiaurreko komunitate horietan genero rola oso banatuta zeudela uste izan da, egungo gizartearen ikuspegi



MATHEW VERDOLIVO

Duela 9.000 urte Andeetako goi-ordokian bizi zen emakume ehiztari baten gaur egungo irudikapena, haren hilobian aurkitutako lanabesetan oinarrituta.

subjektiboaren eraginez: gizonezkoek haien indarra erabiltzen zuten ehizarako eta emakumeak, aldiz, bilketan eta haurren zaintzan aritzen ziren.

Ikerlanak uste hori hautsi du, baina horrek ez du esan nahi ehizan generoen artean alderik, ñabardurarik ez zegoenik. Wall-Scheffleren hitzetan, "arrasto arkeologikoen adierazten dutenez, emakumeek nagusiki tamaina handiko harrapakinaren ehizan jarduten zuten, belaunaldi berriei ehiza praktikak irakasten zizkieten eta, maiz, gizonezkoek

baino arma anitzagoak eta estrategia garatuagoak erabiltzen zituzten".

Ehizarena adibide bat baino ez dela diote ikerlariak, eta orain arte Historiaurreko genero rola egungo ikuspegitik baldintzatu eta oker interpretatu direnez, beste arlo batzuk ere ikertzen hasi dira: emakumezkoen mugikortasuna, edozein jardura egin bitartean haur txikiak bizkarrean eramateko gaitasuna... Eta orain arte bildutako datuak beraztertzeke eskatzen diete komunitate zientifikoko kideei. ●

Eternitatearen usaina



NINA ALDINTHUNE

Antzinako Egipton, momifikazio prozesuan, zenbait organo ontzi kanopotan sartzen zituzten, eta hainbat substantziaz osatutako baltsamoak erabiltzen zituzten horiek kontserbatzeko. Berriki Max Planck Institutuko ikerlariak Amenhotep II.a faraioren inude Senetnay-ren ontzi kanopoetako arrastoak aztertu dituzte eta substantzia zerrenda luzea atera dute: erleen argizaria, landare olioak, animalia

gantza, betuna, erretxina, kanela, ilarrak, azido benzoikoa... Momifikazio prozesuaren sofistikazio mailaren eta egiptoarren merkataritza sare zabalaren froga da zerrenda hori. Gainera, Carole Galvez lurringilearen laguntzaz, baltsamo horren lurrina berregin dute; "eternitatearen usaina" deitu diote eta, oraingoz, Danimarkako Moesgaard museoko bisitariek usaintzeko aukera dute. ●

INTZURA LIBURUA

Iceberg bat Bidasoaren erdian

Anomalia historiko-politikoetan joria da Euskal Herria, baina hala ere, Irun eta Hendaiaren artean dagoen Konpantzia irlak –alegia, Faisaien Uharteak, edo Konferantziako irlak, edo Intzurak– gure objektu arraroen bilduman leku berezia dauka. “Munduko kondominiorik txikiena”. Sarri entzungo zenuen, sikiera telebistako notizietan urtean bitan muga aldatu dela eta irla orain Frantziarena, orain Espainiarena dela esplikatzen dutenean. Uharte horren tolesturetan buru-belarri murgildu nahi izanez gero, aukera paregabea da Iraitz Agirrek eta Ivan Gomezek argitaratu duten *Intzura* liburua.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA  EGILEEK UTZIAK / IRUNGO UDAL ARTXIBOA

Irungo Urdanibia plazan geratu ziren Iraitz Agirre Aranguren (Arrasate, 1983) eta Ivan Gomez Gutierrez (Irun, 1984). Ez zuten lehenagotik elkarren ezaguerarik. Proiektu batek –edo proiektu baten proiektuak– bultzatu zuen enkontru hura Mosku izenez ezagunagoa den enparantzan. Faisaien Uharteari buruzko egitasmo bat: Irungo Udalaren Ribera izeneko ikerketa-bekaren 2018ko deialdira aurkeztu nahi zuten, ondoren *tandem* gisa gauzatzeko, alde artistikoa (Gomez) eta ikerketa antropologikoa (Agirre) uztartuta.

Gaia bera, lan egiteko modua, proiektuaren diziplinartekotasuna eta ezpainzapi batean jasota geratu zen lehen

bilera hartako akta, dena izan da ezohiko samarra, bost urte geroago *Intzura* liburua argitaratu duten arte. Ez da harritzekoa, beraz, emaitza ere ohiko kanonetan ez kabitzea: saiakera da? Antzerki-testua? Historia-liburua? Lan antropologikoa? Agian horiek denak batera? Eta agian zerbait gehiago ere bai? Egileekin hitz egin ondoren ere, emaitza sailkatzea ez da kontu erraza. “Saiakeraren saiakeraren saiakera” gisa definitu du momentu batean Agirrek. Akaso “artefaktu” hitzak ere balio du hura definitzeko, batetik, nahiko ibilgu zabala delako liburuaren azpiko korronte guztiak kabitzeko; eta bestetik, “gailu” hitza bitan agertzen delako li-

buruan bertan, Agirrek hasieran idatzi duen testuan eta Gomezek amaiera gisa osatu duenean.

Faisaien Uharteari –Intzurari, Konpantziari, Konferentziako irlari– buruzko liburu-gailu bat, beraz, egileek autoekoiztuta publikatu dena, ohiko liburu-dendetan salgai ez dagoena –*intzurauharte@gmail.com* helbidera idatzita eskuratu daiteke ale bat kontrabandoan–, eta mundu honetan bi estatuk partekatzen duten lur zatirik txikiena abiapuntu hartuta, zalantzan jartzen duena historia ofiziala, Euskal Herria zatitzen duen muga bera eta, bide batez, gauzen ohiko funtzionamenduari buruzko beste pertzepzio asko ere bai.



Gomezek dio, Irungoa izaki, aspalditik zeukala begitan uharte hori. “Irlaren ideia interesatzen zitzaidan bere horretan, beste gauzetatik bereizita dagoen zerbait bezala; eta horrez gain, ur biren artean dagoenez, eta artista gisa egiten dudan lanean aspektu erlazionala oso inportantea denez, eskua sartu niezaiokeen alde ugaritatik”. Bestelakoa izan zen Agirreren hasierako hurbilpena: “Politikoki, euskaldunontzat gauza arraroa da irla hori. Banekien kondominioa denez muga urtean bitan lekuz aldatzen dela eta abar. Eta Ivanekin elkartzean, bera dagoeneko bazetorren Velazquezzen figura aztertzetik eta bazeukan idatzitako historiaren inguruan informazio pila. Eta ni berriz, hutsuneetatik galdera pila batekin nentorren: feminismotik eta euskalduntasunetik historia ofizialak kontatzen ez duen guztiari begiratu nahi nion”.

Harremanak, hutsuneak, bereizita dagoen leku zehaztugabe bat, harekin lotutako obra artistikoak, identitate kolektiboak... Ez dira buztin txarrak lanean



“ ”

**Aukeratu genituen
elkarrizketatuek ez
zuten ematen antzerki
baterako, zortzi liburu
desberdin idazteko
baizik**

hasteko. Elkartu ziren egunean bertan bururatu zitzairen uharteari buruzko elkarrizketa-sorta bat egitea, eta, horiek oinarri hartuta, antzezlan baten libretoa idaztea. Agirrek gogoan dauka toberaren eredu izan zutela buruan: berak parte hartu zuen Debagoienan Lapurdiko tradizioa eredu hartuta egin zituzten herri antzerkietan. Gomezek dioenez, saiakeraren ideia ere interesatu zitzairen hasieratik, “ez gogoeta egiteko saiakera gisa ulertuta, saiatzeko gisa baizik, zerbait egitearen zentzuan alegia. Ez bukatzeko helburuz; ariketa bera egiteko bakarrik, kasik kirola balitz bezala”. Alegia, ez zuten gai zehatz bati buruzko argudioak bilduz ondorio argi bat bilatzen duen saiakera idatzi nahi izan. Eta gainera, ariketaren zentzuari helduta, saiakerak lotura handia izan dezake antzerkiaren espirituarekin: “Ideia hori erabili dugu: ‘Goazen entseatzera, ea nola ateratzen zaigun hau’”, azaldu du Agirrek.

“Baina aukeratu genituen elkarrizketatuek ez zuten ematen antzerki baterako, zortzi liburu desberdin idazteko baizik”, gaineratu du. Sagrario Arrizabalaga Irungo Udal Artxiboko artxibista, Edurne Epelde ekintzaile feminista, Maria Ruido artista, Amets Arzallus bertsolaria, Maggie Bullen antropologoa, Eneko Bidegain kazetaria, Valvanera Nieto Donemiliaga Kukulako monastegi-gidaria eta Anartz Ormaza arkitektoa izan dira proiekturako elkarrizketatu dituztenak. Hala ere, *Intzura*-n ez dira solasaldi horiek zuzenean transkribatuta agertzen. Adierazpenen atribuzioa berezia da, ohiko ikerketa lanetan edo prentsan egiten denaz bestelakoa, ibaia bezala baita liburu hau eta sigi-saga dabil generoen ertzen artean. Gomezek



azaldu du, “literatura garaikideari keinu bat eginez”, elkarrizketatutako pertsonen adierazpenak transkribatu ondoren, testu hori guztia zortzi pertsonaiaren bidez eman dutela –Bat Gizona, Mujer Dos, Garson Trois, Miss Four, Bost, Sei Anderea, Doctora Siete eta Zortzi Gorputza-. Pertsonaia horiek irudikatu dituzte irlan, dokumentu zaharrez betetako mahai baten inguruan. “Paper horien azpian ezkutuko sistema bat dagoela uste dute”, azaltzen zaigu liburuaren hasieran. Eszenaratze horren bitartez lortu nahi izan dute irakurle bakoitzak imajina ditzala elkarrekin pentsatzen ari diren pertsonaia horiek, liburuako esaldiak benetan nork esan zituen zehaztu gabe utziz.

Egindako elkarrizketa bakoitzaren barruan gai batzuk lokalizatu ondoren, ebaki egin zituzten jatorrizko transkripzioetatik. “Collagetik gertuago dagoen idazketa” dela uste du Gomezek, “idazkera linealetik urrundua” direla. Gainera, collageko ebaketak agerian uzteko erabakia hartu dute, “literarioki baldarrak izan zitezkeen arren, konposizio artistikoaren pista gisa bazeukalako bere pisua testuak haustura horiek edukitzeak”. Agirrek erantsi du: “Oso argi geneukan lana biluzik egon behar zela, akatsak, baldarkeriak... agerian utziko

genituela”. Liminaltasunaren ideia bat transmititzen du liburuak horrelako erabakien bitartez: Konpantzia –Faisaien Uhartean, Konferentziako Irlan, Intzuran–, Bidasoako uren erdian dagoen objektu geografiko identifikagaitz horretan, ezer ez baitago definizio zehaztuta ainguratuta, batzuek kontrakoa ulertarazi nahi izaten duten arren. Eta elkarlanean osatu duten objektu artistiko-literario-filosofikoak materialki ere hori adierazi nahi du. Apustu hori urrunago ere eraman nahi zuten, liburuak koadernatzeko erabiltzen diren hariak solte utziz, kolarik gabe, hauskortasun sentsazio handiagoa eman nahian. Inprimategian ezinezkotzat jo zuten ordea.

“ ”

**Grazioso da: paperek
gauza batzuk esaten
dituzte, baina benetan
ez da erakutsi nahi
izan esandakoa egia
den ala ez**

“Icebergaren ideia erabili izan dugu proiektu honetan. Alegia, irlak badaukala sakontasun bat, barrurantz zulatu beharrekoa. Horretarako, gauzak bilatzen hasi ginen, baita gure aurkikuntzak proiektuan sartzeko modua ere. Arkeologia-prozesu baten emozioa ere eduki du”, Gomezen hitzetan. Irlan bertan egin ez den arkeologia-lana, bide batez, liburuaren egileek gogora ekarri duten moduan, ez baita uhartean lagin-zulorik egin Bidasoaldean azken mendeetan izan diren gerretako metraila-arrastorik edo bestelakorik geratzen ote den ikusteko. “Graziosoa da, izan ere, paperek gauza batzuk esaten dituzte, baina benetan ez da nahi izan erakutsi hori egia den ala ez. Pentsarazten dizu zein punturaino daukan historia ofizialak interesik irla zer izan zen jakiteko ala fabula bat utzi nahi izan duen”, azaldu du Agirrek.

Kontraesan hori modu parodiko samarrean agertzen da liburuan, *Mujer Dos-en* bitartez: beste pertsonaiak historiari buruzko hipotesiak egiten hasten direnean, pertsonaia horrek TESTUAK –horrela, letra larriz– kontsultatu behar direla gogorarazten die etengabe. “Justu Irungo artxibozainak maiz esaten zuen, ‘hau ez da agertzen: Bidasoa zeharkatu nahian hil ziren etorkin portugaldarrena mundu guztiak daki, baina ez dago pape-retan’. Eta berak hori askotan aipatzea pila bat gustatu zitzaigun, bera delako paperak ezagutzen dituen, eta esaten ari zitzaigun gauza batzuk ez zirela agertuko segur aski”. Gomezen iritziz, bada-go joera pentsatzeko testuetan dagoela egia. “Eta gure ariketa izan da pentsatzea ea zergatik idazten diren testuak, zertarako jasotzen den zerbait idatziz. Hori egia da, horrela izatea nahi delako. Hortaz, auzitan jarri nahi izan dugu artxiboarekin guk geuk egin dugun lana ere. Artxiboko lana egin baitugu, baina ez bakarrik dokumentuen arteko harremanak bilatzeko, artxiboak berak botere harreman bati erantzuten diola kontuan hartuz baizik”.

Lan horri esker, 1659an uhartean bertan sinatu zen Pirinioetako Bakeari buruzko gogoeta interesgarriak jaso dituzte, besteak beste. Paktu horrek ezarri zuen gaur egun oraindik indarrean dagoen bi estatuen arteko muga, Faisaien Uhartean partekatua den anomaliari ere bide eman. Espainiako eta Frantziako erregeen arteko hitzarmen horrek Euskal Herrian izan zuen eraginaz gain, gertakari historikoarekin lotutako



“ ”

Icebergaren ideia erabili dugu. Alegia, irlak badaukala barrurantz zulatu beharrekoa

beste zenbait elementu ere betaurreko berriekin aztertze aukera ematen du liburuak, adibidez, akordioarekin lotu zen Frantziako Luis XIV.aren eta Espainiako Maria Teresa infantaren arteko ezkontza: zeremonia Faisaien Uhartean zergatik ospatu zen, hura inguratzen zuen errepresentazio-sorta –Velazquezen koadroak, garaiko grabatuak...–, irlan egin zituzten esku-hartze arkitektonikoak edo eraikin horietaz dokumentuek ziotenetik abiatuta, nolako irudiak asmatu zituzten garaiko eta ondorengo urteetako artistek.

“Historia kontatzeko moduak” du azpititulua *Intzura*-k, bai baitauka atzera-begirada kritikotik, oraina ulertzeko kontatu gabe geratu den iceberg zatia esploratzen. Ez da hori bakarrik, ordea: batetik, mugaren kontzeptua gaur

egun birpentsatzeko bide asko ere ematen dituen lana baita –Agirrek azaldu duen moduan, “segun eta ze gorputzek zeharkatzen duen muga hori, oso muga diferenteez ari gara hizketan. Batzuek bizia jokoan jartzen dute muga pasatzeko eta besteentzat berriz, jada bizi ez dugun zerbait bihurtu da”–; bestetik, uhartea etorkizunera ere proiektatzen delako lan honetako parte batzuetan, besteak beste zortzi pertsonaien elkarriketen artean dauden eranskinetan, zeinetan Irungo Eguzkitza BHIko 15-16 urteko gazteek irlan martxan jarriko lituzketen proiektuak ikus ditzakeen irakurleak, baita Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko ikasleek irlaren inguruan landu zituzten “fikzio arkitektonikoak” ere.

“Askok gustatzen zaidan gauzetako bat da ez dagoela inolako ondoriorik”, azaldu du Agirrek elkarrizketaren amaiera aldera. Egia da: *Intzura* galdera berriak egitera zaramatzen liburu da batez ere, ez lantzen dituen gaiei buruzko behin betiko egiak *pack* batean bilduta ematen dizkizun produktu bat. Liburu amaituta ordea, buruan ideia bat behintzat bai geratzen da nahiko argi: zubien premia. Bai uhartea bere inguruarekin lotzeko, baita gure errealtatea ulertzeko erabiltzen ditugun jakintza-esparruen arteko konexioak sendoagoak izan daitezen ere. ●



LIBURUA

Amonaren etxean



EDELWIVES

ERREKAN BEHERA

TESTUA: Pepe Maestro

MARRAZKIAK: Mercè López

ITZULPENA: Patxi Zubizarreta

EREIN, 2023

XABIER ETXANIZ ERLE

Liburu hau dugu *Bioletaren sekretutegia* bildumako lehen alea; bigarre-na *Ustekabea etxaldean* dugu. Lehen ale honetan Bioleta, zortzi urteko neska-txa berezia, eta haren amona aurkezten zaizkigu. “Bioleta irakurzale amorratua da. Dena irakurtzen du: zuhaitzetako azalak eta hostoak, animalien aztarnak, baita hazien, intsektuen eta hegaztien joan-etorriak ere... Bioletak zortzi urte ditu, eta bi txirikorda –zumezko hari batean bilduak–, eta amona miresgarri bat”. Horrelaxe hasten da liburua, eta irakurleak ikus dezakeen bezala, oso neska aparta dirudi Bioletak.

Liburuan neskatxaren egunerokoak aurkezten zaizkigu, ematen dituen pa-seoak Barrabas mastin txakurrarekin,

errekan duen kobazulo sekretua, nola gozaten duen animalien kontuekin... baita ehiztari batekin duten enkontrua ere, berak eta Barrabasek, txakurraren zaintzapean ibiltzen baita beti Bioleta.

Argumentu aldetik, beraz, arina eta entretenigarria da liburua; testu gutxi eta ilustrazio ugari lagunduta; irakurle hipotetikoaren gustuko kontuak eta protagonistarekin bat egiteko moduko gertakariak eta gogoetak. Ilustrazioek, gainera, hori guztia errazago eta gozago egiten dute.

Liburuak, baina, badu aparteko meritua edo berezitasuna. Idazkera, istorioa kontatzeko erritmoa: “Baltsan doa. Barrabasekin batera, errekan behera. Paladaka hasi da Bioleta: erreka- in-

darra neurtu behar du, ur korrontearen erritmoarekin bat egin nahian. Elkarrizketa bat da: ura eta bera”. Poetikotasu-netik gertu, narrazioa arina da, baina ez samur eskainia.

Kontakizunak badu, gainera, misterio edo arrisku puntua; ehiztari baten arrastoa topatzen dutenean, “bat-batean, tiroa. Eta erreka geratu da ezin isilago. Isiltasunak hartu du erreka bazter-rra. Dena gelditu da une batetik bestera. Bioleta ausarta ere harria baino isilago geratu da”.

Amaiera zoriontsuak irakurlearen irribarrea ere sorrarazten du, baina, batez ere, Bioletak amonaren etxean bizi dituen istorio gehiagoren berri izateko gogoak pitzen. ●



MUSIKA

Kausa on baterako



MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Haurren minbiziari eta gaixotasun arraroei buruz ikertzeko egiten eta eskaintzen den gutzia gutxi da. Garrantzitsua da guztiok, ahal dugun neurrian, helburu horretan laguntzea.

Elkarte asko, irabazi asmorik gabe, horrelako gaixotasunak dituzten haurren bizitza hobetzen saiatzen dira. Besteak beste, Columbus Fundazioa sortu zen 2017an, minbizi edo gaixotasun arraroak dituzten haurrei terapiarik aurreratuenak eta eraginkorrenak eskuratzen laguntzeko, haien bizi-itxaropena eta bizi-kalitatea hobetzeko. Era berean, kultura eta zientzia sustatzen eta zabalitzen lan egiten du fundazio horrek, gizartera hurbiltzea ahalbidetzen duten jarduerak bultzatuta.

Ildo horretan, Columbus Fundazioak *RenHacer 2023* jaialdia antolatu du, behar duten haurrei laguntza emateko, ikerketa sustatzeko eta kultura zabaltzeko. Jaialdi horrek, egun batzuetan zehar,

ongintzazko kontzertu batzuk eskaini ditu, beren jarduerak egiteko aukera emango dieten funtsak lortzeko.

Kontzertu horietako bat Bilboko Elkarte Filarmonikoan egin zen, bertako kontzertu-areto nagusian. Areto hori Fidel Iturria arkitektoak eraiki zuen 1904an. Europako ganbera-areto zaharretakoa da, eta akustika onena duena. Grabazio garrantzitsuak egin dira bertan, hala nola Alicia de Larrochak *Suite Iberia*-ren egin zuen lehen bertsioa (bide batez, aurten, pianista handi horren jaiotzaren mendeurrena betetzen da).

Errezitaldia eman zuten Vasko Vassilev biolinistak eta María José Montiel mezzo bikainak, bigarrenak Miquel Estelrich pianistarekin batera (artxiboko argazkian ageri dira biak). Horrelako kontzertuetan espero zitekeen bezala, interpretatu zuten errepertorioa polita izan zen, publikoarentzat oso atsegina eta askotarikoa.

ERREZITALDI LIRIKOA

ANTOLATZAILEA: Columbus Fundazioa.

INTERPRETEAK: María José Montiel (mezzoa), Vasko Vassilev (biolina), Miquel Estelrich (pianoa).

EGITARAUA: Khan, Bizet, Massenet, Sain Saëns, Falla, Granados, Halffter, Montsalvatge, Sarasate eta Guridiren obrak.

LEKUA: Bilboko Elkarte Filarmonikoa.

DATA: Irailaren 15a.

Kontzertuaren lehen zatia konpositore frantziarren obrek osatu zuten. Bizet, Massenet eta Saint-Saënsen piezak gustuz eta kariño nabarmenez interpretatu zituzten mezzook eta biolinista bulgariarrak.

Bigarren zatian, bi bakarlariak oso gustura sumatu genituen interpretatu zituzten piezekin. Montielek abestu zituen Fallaren *7 kantu espainiar herrikoien* hiru piezak ezin hobeto egokitzen dira bere ahots ilun eta adierazkorrera.

Vassilevek, bere aldetik, Sarasate-ren *Aires gitanos* lanean bere teknika eta musikaltasun handia erakutsi zituen.

Saioa bi bisekin amaitu zen: Guridiren *Hamar euskal melodiak* obratik *Ala baita* izenekoa, Montielek euskaraz bikain abestua, eta *El día que me quieras* tangoa. Publikoa, tamalez oso gutxi zena, poz-pez atera zen. ●



Artista oholtzatik at dagoenean

UXUE GUTIERREZ LORENZO GETXO FOLK JAIALDIA

luntzeko 19:40 dira Algortako Muxikebarri zentroko lehiatilan. Sarrera eskuratzeraz hurbildu naiz eta aurrean dudan emakumeak bere sarrera nola eskatzen duen entzun dut: "Lau sarrera Kepa Junkeraren izenean". Jarraian, nor den adierazi dio beirazko lehiatilan bestaldera dagoen langileari: Maria Junkera; hain zuzen, Keparen arreba. Orduantxe pentsatu dut lehenbizikoz ikustear nintzen emanaldiaren kontraesana: artista, gau horretako protagonista, ez da oholtza gainean egongo. Keparen senitartekoak, eta akaso Kepa bera ere, publiko artean gordeta egongo dira emanaldiak iraun bitartean.

Kepa Junkera, non egongo da? Nola egongo da?, pentsatu dut. Muxikebarriko ateak gurutzatu eta berehala heldu zait erantzuna. Irudia gazi-goza iruditatu zait, kontrastea izugarria da. Oihal beltz baten eskegita daude Kepa Junkerak Getxo Folk jaialdian egin dituen sei kon-

zertuen irudiak. Energia blai, trikita eskuetan hartuta eta irribarrea ahoan. Mosaikoaren aurrean, ordea, egungo Kepa Junkera dago. 2018an izandako iktusaren ondorioz gurpildun aulkian eta musukoa jantzita dago musikaria. Gaurkoan, beste baten esku, ahots eta gorputzetan biziko dugu ikus entzuleok Kepa Junkeraren musika. Baita artistak berak ere.

HAUSPOZ emanaldiak Kepa Junkera musikariaren figura goratzea du helburu; hau da, musikaria omentzea. Nire eserlekua aurkitu berritan pentsatu dut: zein da, helburua argi izanda ere, omenaldi kontzertu bat sortzeko modu egokia?

Teloia gora, hasi da *HAUSPOZ*. Hango eta hemengo artistak tartekatu dira ordu eta erdi iraun duen emanaldian. Hortxe nire galderari erantzuna: artista bat ez da omentzen berak sortutako pieza esanguratsuen hautaketa baten segidaginez. Artista bat omentzen da esentzia-

ra jota, egindako ekarpenaren norabidea ulertuta. Tradizioa, modernitatea, sus-traiak eta aliantzak batu dira oholtzan: Ibon Koteron albokaria, Oreka TX txalapartariak, Agurtzane eta Ion Elustondo, Uxia abeslari galiziarra, Pandereteras del Barrio kantabriarrak, Kukai taldeko dantzariak... Apurka, emanaldiaren intentsitate areagotzen joan da; eta, bukaera aldera indarra biderkatu da, nabarmen.

21:20. Emanaldia bukatzeko hamar minutu falta dira. Nola bukatzen da Kepa Junkeraren omenezko kontzertu bat? Belarrietatik heldu zait erantzuna: *Bok-Spok*. Eta ez dakit Kepa Junkera inoiz entzungo ote dugun berriz *Bok-Spok* jotzen, baina denok ikusten dugu Kepa Junkera *Bok-Spok* entzuten dugun bakoitzean. Eta orduan bai: oholtzan azaldu da Kepa Junkera. Publikoak harrera beroa egin dio, txalo artean. Keparen musikak hartu du oholtza, eta azkenerako Kepa ere izan da oholtza gainean. ●

HAUSPOZ

Kepa Junkeraren omenezko kontzertua, Getxo Folk jaialdian.



NOIZ: Irailaren 13an.

NON: Muxikebarri aretoan.



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA «LEKU BAT OMEN ZUEN», MAITANE PEREZEN LIBURUKO PASARTE BAT IRAKURRIKO DUZU.




Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Oinez mugitu. 2. Bakoitiz.
3. Beldurra. 4. Ondoez.
5. Urtearen bederatzigarren hil



9	4	3		1	5				
6				8	3	2			
		2	9						4
2	5	8	4	9	7	1			
			5		2		8		
	6	9				4			
4	8			5	9	2			1
		1	6			8	9		
3	9			2			4	5	

ERRAZA

									4
6	7	1		4		2			
2	4			1	7				
4				7	1	3	6		
	3	9		2	6		5	7	
									2
					3		8		
							4		
9	7						5		3

ZAILA

EBAZPENAK

9	4	3	2	1	5	6	7	8
8	7	6	5	4	3	2	1	9
7	6	5	4	3	2	1	9	8
6	5	4	3	2	1	9	8	7
5	4	3	2	1	9	8	7	6
4	3	2	1	9	8	7	6	5
3	2	1	9	8	7	6	5	4
2	1	9	8	7	6	5	4	3
1	9	8	7	6	5	4	3	2

ERRAZA

9	8	3	2	6	5	7	1	4
8	7	1	8	4	9	2	3	5
7	1	8	4	9	2	3	5	6
6	7	1	8	4	9	2	3	5
5	2	9	7	1	3	6	8	4
4	5	2	9	7	1	3	6	8
3	9	4	2	2	6	1	5	7
2	3	9	4	2	2	6	1	5
1	9	7	6	8	4	5	2	3

ZAILA

PUZLEA: «EZ DUT GOIZERO ITSASOAN HARTZEN DUDAN BAINUA HARTZEKO ASTRIK IZAN, GAU TXARRAK NAHASTU NAU, URDURI EGON NAIZ, EZ DAKIT ESATEN LO EGIN OTE DUDAN.»
5XS: 1. IBILI, 2. BAKAR, 3. IKARA, 4. LARRI, 5. IRALI.
HIZKI BERAK: 1. OLEAZIOA, 2. JELOSKOR, 3. IDEOLOGO, 4. MEMELOAK, 5. KAMELEOI, 6. MAUSOLEO.

Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				A	Z	I	O	A
2	J				S	K	O	R
3	I	D				O	G	O
4	M	E	M				A	K
5	K	A	M	E				I
6	M	A	U	S	O			

Alba Alfageme

PSIKOLOGOA



FEMINISMOA SALBAGAILU

"Feminismoak bizitza salbatu dit eta, era berean, ahalbidetu dit nire bizitzan zehar, neska edo emakumea izateagatik bizi izan ditudan hainbat pasarte ulertzea. Feminismoari esker identifikatu ditut bizitako hamaika injustizia eta indarkeria. Ez bakarrik nik pairatutakoak, baita inguruan ditudan eta gizonezkoen munduan borrokatzen zuten emakumeek jasandakoak ere; amak, amonak eta hainbeste lagunek, hain zuzen ere. Identifikazio prozesu hori egiteaz haratago, feminismoa nabigazio iturri ere izan da niretzat, eta ulertarazi dit patriarkatuaren kontra borrokatu eta alternatiba feminista bat eraikitzea posible dela".

"Rubiales auzia inokulatuta dugun matxismoaren termometroa izan da"

Emakumeen eskubideen borrokan ibilbide luzea du Alba Alfagemek. Indarkeria matxistetan aditua da, Brasil eta Indiako hainbat gobernuz kanpoko erakunderekin lan egin zuen eta azken urteetan Kataluniako Generalitateko Barne Saileko aholkulari izendatu dute eta Universitat de Girona eta Universitat de Barcelonako irakaslea izan da.

SAIOA BALEZTENA DANI CODINA

Kataluniako Generalitatearen aholkularia zara. Nola suertatu zen aukera?

Bereziki konplexua eta patriarkatuaren adibide gardena den Barne Saileko aholkulari izatea proposatu zidaten; sail horretan lidergoa betidanik gizonezkoena izan da eta bereziki maskulinizatuta dago. Nire erronka hasieratik izan zen kontseilaritzaren egoera feminizatzea, zuzendaritza karguak zituzten emakumeak gehituta eta dinamikak aldatuta. Gogorra izan da, erakundeak toki itxiak dira eta joera matxista nabarmena da; nekagarria izan daiteke, baina, aldi berean, gauzak aldatzea posible dela egiaztatzeko aukera izan dut eta horrek konpentzatzen du.

Erakundeetatik nahikoa egiten ari da gizon eta emakumezkoen desberdintasunaren kontra borrokatzeko?

Geroz eta erakunde gehiagok kontzientzia hartu dute. Lan handia egiten ari da *statu quo* aldatzeko, baina sekula ez da nahikoa. Ibilbide luze bateko abiapuntuan gaude.

Aurrerapausoetako bat izan da 'Soilik baietz da baietz' eztabaidagarria. Zer deritzozu?

Lege horrek aurrerapen nabarmena dakar indarkeria matxistaren kontrako borrokan, aldiz, gizarteko sektore eskuindarrek sustatu, baina, ezker-tiarren artean ere azaleratu den erantzun erreakzionarioa nagusitu da. Arazoa da fokua mugatu dutela zigor kodean, baina ez zaio baliorik eman legeak bermatzen duen arreta integralean, biktimen konponketan, eta, funtsean, bere horretan ekarri dituen aurrerapenetan. Montero ministroak ordaindu duen prezioa onartezina da.

2021ean *Quan cridem els nostres noms* (Gure izenak oihukatzen ditugunean) liburua argitaratu zenuen. Emakumeen kontrako isilpeko guda bat dagoela erraten duzu. Bi urte pasa dira, gudad jarraitzen du?

Zorionez, hain isilpean ez egoteko borrokatzen dugu, baina gudad bere horretan jarraitzen du, bai. Denbora luzez patriarkatua saiatu da emakumeen kontrako erasoak eta indarkeriak zatikatzen, horregatik zen hain



Rubiales auziaz: "Hasieran ulertezina iruditu zitzaidan ikustea gizarteak denbora behar izan zuela, edonork ikusi zituen irudi horiek irudikatzen zutena eraso eta indarkeria sexual gisa izendatzeko".

zaila egiturazko arazo gisa ulertzea. Orain begiak irekitzen hasi gara, hasi gara ulertzen arazoa patriarkatuan gizonezkoek duten boterea dela. Terrorismo matxista deitzen diot nik, ez baitago matxismoaz aparte hainbeste emakume erailtzen dituen fenomenorik. Ezin dugu ahaztu gure gizartean emakumezkoen heriotzen eta ziurgabetasunaren lehendabiziko arrazoia direla indarkeria matxistak.

Nola bizi izan duzu Rubiales auzia?

Hasieran ulertezina iruditu zitzaidan ikustea gizarteak denbora behar izan zuela, edonork ikusi zituen irudi horiek irudikatzen zutena eraso eta indarkeria sexual gisa izendatzeko. Argi dago erantzun hori inokulatuta dugun matxismoaren termometroa izan zela.

Rubialesek dimititu behar zuen ostiral hartan, baina ez zuen egin. Zuk eskerrak eman zenizkion *Diari Ara*-ko artikulu batean, zergatik?

Egin zuen prentsaurreko beldurgarri hura matxismoaren ikastaroa izan zelako; Jenniri errua bota zion, euforiaz hitz egin zuen, feminismo faltsuaz... Mintzal-di hark eragin zuen jende askok begiak irekitzea, bertatik bertara ikusi zutelako

matxista bat letra larriekin, neandertal bat. Bere hitzaldiari esker kontzientzia hartu zuen jende askok eta hainbat sektoretako erantzuna ekarri zuen.

Rubialesen musuak iraultza bat eragin zuen, inflexio puntu bat.

Ez baita musu bortxatu bat bakarrik; auzi horrek agerian uzten ditu gizartean, enpresetan eta erakundeetan instituzionalizatu eta normalizatu diren indarkeria matxistak eta botere erasoak. Jenniri emandako musuak oihartzuna izan du, guztiok bizi izan dugulako antzeko erasoren bat. Desberdintasuna da gauzak aldatzeko arrakala bat ikusi dugula.

Jennik salaketa jarri zuen azkenean. Zenbateraino da garrantzitsua hori?

Garrantzitsua da, baina egin ez balu ere ulertuko nuke. Eztabaida juridikotik ihes egitea komeni da; zigorraren bidez haratago, inportanteena delako gizartearen, erakundearen eta elkarten erantzuna.

Badago bere salaketa zalantzan jarri duenik, ospatu zuelako, Ibizara oporteretan joan zelako...

Eraso baten aurrean dagoen erantzuna ez genuke epaitu beharko. Baina, bai,

patriarkatuak emakumeen kontrako bonbak botatzen jarraitzen du, gure duintasuna eta sinesgarritasuna gutxieteko.

Futbolari mutilen salaketa lotsatia izan da, orain arte.

Lotsagarria izan da, eta era berean, erantzun urri hori bada gure gizarteak duen arazo larri baten isla; gizonezkoak ez dira interpelatuta sentitzen. Hori da erronka nagusia: gizonezkoek ulertzea indarkeria matxistak maskulinitate heteropatriarkal eta normatiboak sortu dituela. Emakumeon historia zapalduta egon izan da patriarkatuak inposatutako isiltasunarekin. Isiltasun hori sortzen da gure ahotsak lapurtzeko, sinesgarriak ez bagara, ez dugulako espazioa okupatzeko aukerarik. Eta ezin dugu ahaztu indarkeria matxista baten aurrean isiltasunak erasotzailea indartzen duela.

Zerbait irakatsi digu Rubiales auziak?

Noski, agerian ikusi dugu indarkeria matxisten kontra borrokatzea posible dela eta aukera dugula, gizarte patriarkalaren kontrako alternatiba bat erakitzeko. ●

Semperrek euskaraz, zuk zergatik ez?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ba entretenigarria izan da gauza, ez pentsa: nik uste nuen dena oso politikoki polit gertatuko zela Espainiako Diputatuen Kongresuan legearen bedekazioarekin inor euskaraz hizketan entzungo genuen lehenbiziko aldian. Aldekoen aldekotasuna erraza baitzen aurreikusten. Kasik kontrakoen kontrakeria bezainbeste. Baina, keba. Aurreikuspen guztiak pikutara joan ziren aurka zegoen diputatu batek –Borja Semper, a.k.a. “Dunboako Churchill”– aldekkako keinua egin zuenean, hitz batzuk euskaraz ahoskatuz, nahiz eta hemizikloan euskaraz –katalanez, galizieraz, eta abar– egitearen kontra aritu.

Izugarri asaldatu zaizkio Genova kaleko hamahirugarrenean bizi diren etxeok, Amurrioko Santiago eta beste lehengusuak eta Madrilgo medioetan jai eta aste isiltzen ez diren koinatuak. Badirudi mundutxo horretan aurretik abisatu gabe euskaraz hitz egiten duenak ahuntz eta guzti inbokatzen dituela legionarioak, Flandriako Tertzioak, Filipinetako Azkenak, Gurutzadetako beteranoak, On Pelayo bera eta Getaferen hamaikako osoa, Jose Bordalas buru dutela, penaltia espantuka eskatzen. “Alde egon ala alde egin” kontsigna biziberri-tuz, harmailak hustu zituzten belarrigorrenek. A ze desplantea.

Eta nahiko bakarrik geratu da Semper gaixoa, noski. Euskalgintzako eragileren batek emititu behar luke seinaleren bat jasan duen jazarpenari erantzunez –hori ere euskarafobia da–, baina badirudi oso lanpetuta dabilzala beste ofizialtasuna lortzeko kanpaina antolatzen, Europar Batasuneko, alegia. Nire inguruan behintzat ez baita besterik komentatzen azkenaldian: katalanek Guardiola jarri dutela asuntuaren alde hizketan, baina gurea, publiko egiten denean, askoz txiritiflautikoagoa izango dela. Ea ba laster ikusten dugun, martxa honetan kanpainarik gabe ofizialduko baikaituzte eu-



rogauzetarako eta eskubideak horrela lortzeak ez dauka batere graziarik.

Egia esan, diputatuek euskaraz airtzeok baimena ere esfortzu handirik gabe lortu da. Esan liteke lortu egin digutela. Katalanek, alegia. A ze inbentoa, katalanek: gauzak egiten dituzte. Konkretuki, sekula eztaoak lortzen dituzte. Adibidez, PSOEk bere nazionalismo espainiarraren parte bat erantztea Puigdemonten botoen truke. Egingo luke beste hainbeste gure Puigdemendiren baten faboreak lortzeko? Ba ez dakigu. Ez dakigu gure puigdemenditarrak gutxiagorekin konformatzen diren, beste gauza batzuk eskatzen dituzten ala sozietatek ez diren hain sentsual jartzen abertzaleekin intimitatean etzaten direnean.

Edozein kasutan, momentu honek proiektatzen dituen aukera historikoak ez dira brometakoak. Etorkizuna nola datorren esplikatzeko saiaturik naiz, pixka bat eskematikoki: negoziazio-dinamika hau zenbait urtez errepikatuko da eta Madrilgo gobernuaren truke nazio-

azpiratuek geroz eta eskumen gehiago lortuko dute. 2133ra arte. Orduan gerra piztuko baita, Espainiako koroaren inguruko lehia dinastiko bat dela medio. Eta behingoagatik norbaitek herri honetan bando ona aukeratuko du. Eta sinatuko den bake-itunaren arabera, Foruak berrezarriko dira.

Ondorengo hamarkada eta mendeetan kapitalismoa pixkanaka feudalismorantz mutetzen joango da –feudalismoa, baina *high tech*, ez pentsa: laser ezpatekin eta abar–, eta azkenean faktore guztiak bat egingo dute: Nafarroako Erresuma birfundatuko da. Hori da notizia ona. Notizia txarra da *premium* harpidetzarekin gertatuko dela, alegia, monarkia absolutu eta guzti. Eta gainera koroa Borboien esku egongo dela. Baina tira. Gorteko kronista hasiko da halako batean Erresumaren sorrerari buruzko atzera-begirako monografiko bat egiten eta idatziko du: “Hastapenean, Semper grazia zuen jaun diputatu batek gaztelarrak desafiatu zituen euskaraz mintzatu zelarik...”. ●

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzen eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

2024

Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Orion
aurkezpena

Bi hankako
piztientzat

Egileak:

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Laguntzaileak:

Unai Agirre eta
Eñaut Agirre

bertso zaharrak kantatzen

* Galderen txandan,
publikotik landareen
kontsulta egiteko aukera.

Noiz:

Irailaren 28an

18:30ean

Non:

Kultur Etxean

Antolatzailea:



ARGIA

BIZI BARATZEA